# LG




# GT540-aren Erabiltzailearen eskuliburua

Baliteke operadore guztiek ez eskaintzea eskuliburu honetan azaltzen diren aukera guztiak.

Eskuliburu honen bidez lehen urratsak emango dituzu telefonoarekin. Informazio gehiago nahi baduzu, bisitatu www.lgsmartmanual.com/GT540.

Bluetooth QDIDB016480

**Informazio orokorra**
<LGren bezeroentzako informazio-zentroa>
**902-500-234**
* Ziurtatu zenbakia zuzena dela, deitu aurretik

CE 0168
P/N : MMBB0356125 (1.0) H

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

| | |
|---|---|
| **WiFi (WLAN)** | Europako herrialde guztietan erabiltzeko diseinatua dago gailu hau.<br>WLANen erabilera herrialde bakoitzaren arauen araberakoa izango da. |

Bluetooth QD ID B016480

# LG GT540aren erabiltzailearen eskuliburua

- Eskuliburu honen zatiren bat agian ezin zaio aplikatu telefonoari; hori telefonoaren softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.
- Telefono hau ez da pertsona itsuentzat gomendagarria, teklatua ukipen-pantailan baitu.
- Copyright ©2010 LG Electronics, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta. LG eta LGren logotipoa LG Group-en eta horri lotutako erakundeen marka komertzial erregistratuak dira. Gainerako marka komertzialak dagozkien jabeenak dira.
- Google, Inc.-en marka komertzialak dira Google, Googlen logotipoa, Google Maps, Google Mail, YouTube, Google Talk, Android eta Android Market.



# Zorionak LGren GT540 telefono mugikorra erosteagatik. Modelo honek diseinu berritzailea eta konpaktua du, eta bateragarria da komunikazio mugikor digitaleko teknologiarik aurreratuenarekin.

Nola bota gailu elektriko eta elektroniko zaharrak

1 Produktu batean gurpildun edukiontzi baten irudi ezabatua azaltzen bada, produktuak 2002/96/EE Europako Direktiba bete behar du.

2 Gailu elektriko eta elektronikoak gobernuak edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneetara eraman behar dira, ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arruntaren bidez.

3 Gailu erabilezinak behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihets daitezke.

4 Gailu zaharrak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.

# Edukiak


**Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak .......... 7**

**Ohar garrantzitsua .......... 13**

1. Telefonoaren memoria .......... 13
2. Bateriaren iraupena optimizatzea .......... 13
3. Iturri irekiko sistema eragilea instalatzea .......... 14
4. Desblokeatzeko eredua erabiltzea .......... 15
5. Modu segurua erabiltzea eta erabat berrabiaraztea .......... 15
6. WiFi sareetara konektatzea .......... 16
7. MicroSD txartela erabiltzea .......... 17
8. Aplikazioak irekitzea eta aldatzea .......... 18
9. Telefonoa ordenagailu batera USB bidez konektatzea .......... 18

**Telefonoa ezagutzea .......... 20**

SIM txartela eta bateria sartzea .......... 22
Telefonoa kargatzea .......... 22
Memoria-txartela instalatzea .......... 24
Memoria-txartela formateatzea .......... 25

**Hasierako pantaila .......... 26**

Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak .......... 26
Oharra .......... 26
Ukipen-pantaila kalibratzea .......... 26
Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea .......... 27
Hasierako pantaila erabiltzea .......... 28
Lehenetsitako hasierako orria hautatzea .......... 28
LGren hasierako pantaila .......... 29
Android-en hasierako pantaila .......... 31
Widget-ak gehitzea hasierako pantailari .......... 32
Duela gutxi erabilitako aplikaziora itzultzea .......... 32

**Googleko kontu bat konfiguratzea .......... 35**

Googleko kontu bat sortzea .......... 35
Googleko kontuarekin saioa hastea .......... 35

**Deiak .......... 37**

Deitzea .......... 37
Kontaktuei deitzea .......... 37
Dei bati erantzutea edo ez onartzea .......... 37
Deiaren bolumena doitzea .......... 37

# Edukiak


Bigarren deia egitea ... 38
Deien erregistroak ikustea ... 38
Deien konfigurazioa ... 39

**Kontaktuak ... 41**
Kontaktu bat bilatzea ... 41
Kontaktu berri bat gehitzea ... 41
Gogoko kontaktuak ... 42
Talde bat sortzea ... 42

**Mezuak/Posta elektronikoa ... 43**
Mezuak ... 43
Mezuak bidaltzea ... 43
Testua idaztea ... 44
T9 modua ... 44
Abc modua ... 45
123 modua ... 45
Letra azentudunak idaztea ... 45
Adibidea ... 45
Posta elektronikoa konfiguratzea ... 46
Mezu elektroniko bat bidaltzea kontu berri baten bidez ... 46
Posta elektronikoa berreskuratzea ... 47
Posta elektronikoko kontuaren doikuntzak aldatzea ... 47
Izenaren arabera antolatzea ... 47
Aurpegierak erabiltzea ... 47
Mezuen doikuntzak aldatzea ... 48
Sortzeko modua ... 49
Sare sozialak ... 49
Telefonoari zure kontua gehitzea ... 50
Zure egoera ikustea eta eguneratzea ... 51
Telefonotik kontuak ezabatzea ... 51

**Kamera ... 52**
Bisorea ezagutzea ... 52
Fokatze-modua erabiltzea ... 53
Argazkiak azkar ateratzea ... 53
Argazkia atera ondoren ... 54
Konfigurazio aurreratua erabiltzea ... 54
Gordetako argazkiak ikustea ... 56

**Bideokamera ... 57**
Bisorea ezagutzea ... 57
Bideo bat azkar egitea ... 58
Bideo bat grabatu ondoren ... 58
Konfigurazio aurreratua erabiltzea ... 59
Gordetako bideoak ikustea ... 60

# Edukiak


**Zure argazkiak eta bideoak........... 61**
- Argazkiak eta bideoak ikustea 61
- Bolumena doitzea bideo bat ikustean ........ 61
- Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa........ 61
- Argazkiak editatzea........ 61
- Argazkia biratzea........ 62
- Argazki bati testua gehitzea...... 62
- Argazki bati efektua gehitzea...... 62
- Argazki bat moztea........ 62
- Argazki bat pertsonalizatzea..... 62
- Marko bat gehitzea ........ 64
- Clipart-a gehitzea ........ 64
- Marrazketa-erreminta erabiltzea ........ 64
- Zigiluak gehitzea ........ 64
- Tamaina aldatzea ........ 64
- Bideoak editatzea........ 64
- Bideoaren iraupena laburtzea 65
- Trantsizio-estiloa hautatzea ...... 65
- Azpitituluak gehitzea ........ 65
- Edizio-efektuak gehitzea ........ 66
- Bideoari bikoizketa gehitzea....... 66

**Multimedia........ 67**
- Ikuspegi kronologikoa........ 67
- Mis imágenes-eko aukeren menua........ 68
- Argazki bat bidaltzea........ 68
- Bideo bat bidaltzea........ 68
- Irudi bat erabiltzea........ 68
- Diapositiba-aurkezpena sortzea.... 69
- Argazkiaren datuak........ 69
- Multimedia-erreproduzitzailea .... 69
- Bideo-editorea........ 69
- Gidoi grafikoa........ 69
- Musikadun filma ........ 70
- Ebakitze automatikoa ........ 71
- Jokatzea ........ 71
- Fitxategiak transferitzea USB biltegiratze masiborako gailuen bidez........ 71
- Musika........ 72
- Abesti bat erreproduzitzea. ........ 72
- Irratia erabiltzea........ 72
- Irrati-kateak bilatzea........ 72
- Kateak berrezartzea ........ 74
- Irratia entzutea ........ 74

**Googlen aplikazioak ........ 75**
- Google Maps........ 75
- Google Market........ 75
- Googlen posta elektronikoa........ 76

# Edukiak


Google Talk .......... 76

**Tresnak .......... 77**

Alarma bat ezartzea .......... 77

Kalkulagailua erabiltzea .......... 77

Egutegiari gertaerak gehitzea .......... 78

Egutegiaren ikuspegi lehenetsia aldatzea .......... 78

Quickoffice .......... 79

Ahots-grabagailua .......... 79

Soinua edo ahotsa grabatzea .......... 79

**Sarea .......... 81**

Arakatzailea .......... 81

Sarera sartzea .......... 81

Web tresna-barra erabiltzea .......... 81

Aukerak erabiltzea .......... 81

Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea .......... 82

Web nabigatzailearen doikuntzak aldatzea .......... 82

**Ezarpenak .......... 83**

Haririk gabeko konexioak .......... 83

Soinua konfiguratzea .......... 83

Pantailaren doikuntzak .......... 84

Ukipen-pantailaren doikuntzak .......... 84

Datuak sinkronizatzea .......... 84

Segurtasuna eta kokapena .......... 84

Pantaila blokeatzea, blokeatzeko ereduaren bidez .......... 85

Aplikazioak .......... 86

Biltegiratzea .......... 86

Data eta ordua .......... 86

Hizkuntza eta herrialdea .......... 87

Bilatzea .......... 87

Irisgarritasuna .......... 87

Ahots-sintesia .......... 87

Telefonoari buruz .......... 87

DivXen nahierako bideo-erregistroa: .......... 87

**WiFi .......... 88**

1. Nola konfiguratu WiFia .......... 88
2. WiFi sare-profilerako laguntza teknikoa .......... 88
3. Nola lortu MAC helbidea .......... 89

**Softwarea eguneratzea .......... 90**

Telefonoaren softwarea eguneratzea .......... 90

Divx Mobile DIVX .......... 90

**Osagarriak .......... 91**

**Arazoak konpontzea .......... 93**

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

Irakurri jarraibide erraz hauek. Jarraibide hauei jaramonik ez egitea arriskutsua edo legez kanpokoa izan daiteke.

## Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARi (Specific Absorption Rate, absortzio espezifikoaren tasa) buruzko informazioa GM360 telefono mugikorraren diseinuak betetzen ditu irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion segurtasun-araudiak. Pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira arau horiek.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absortzio espezifikoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SARen probak, metodo estandarra erabiliz.
- LG telefono-modelo batetik bestera SARen mailan aldea izan badaiteke ere, irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion direktiba garrantzitsuetara egokitzeko moduan diseinatu dira telefono guztiak.
- ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SARen balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- Telefono-modelo hau belarrian erabiltzeko erregistratu den SARen mailarik altuena 1,33 W/kg (10 g) da, eta gorputzaren kontra garraiatzeko baliorik altuena, berriz, 1,31 W/kg (10 g).
- IEEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers) Ingeniari Elektrikoen eta Elektronikoen Institutuak gomendatutako SARen muga-balioak oinarri hartu dituzten herrialdeetan/eskualdeetan bizi direnentzako SAR-datuei buruzko informazioa: 1,6 W/kg ehun gramo bakoitzeko (1).

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

## Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

**⚠ OHARRA**

Telefono-modelo honetan erabiltzeko onartu diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak baino ez erabili. Bestela, telefonoari dagozkion onarpen edo bermeak baliorik gabe gera daitezke, eta hori arriskutsua izan liteke.

- Ez desmuntatu gailua. Konpondu behar bada, eraman gaitutako zerbitzu tekniko batera.
- Ekipoa tresna elektrikoetatik (telebista, irratia edota ordenagailu pertsonala) urrun eduki.
- Ez utzi ekipoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez dadila eror.
- Ez utzi telefonoa bibrazio mekanikoen mende. Ez kolpatu.
- Itzali telefonoa araudi bereziek hala eskatzen duten lekuetan. Adibidez, ez erabili telefonoa ospitaleetan, tresna mediko sentikorrei eragin baitiezaieke.
- Telefonoa kargatzen ari denean, ez ukitu telefonoa eskuak bustiak badituzu. Deskarga elektrikoa jasan eta telefonoa honda dezakezu.
- Ez kargatu telefonoa material sukoia hurbil badago; berotu, eta sute bat eragin dezake.
- Erabili zapi lehor bat unitatearen kanpoko aldea garbitzeko (ez erabili bentzenorik, disolbatzailerik, alkoholik edo antzeko disolbatzailerik).
- Ez kargatu telefonoa gainazal barrubigunen gainean.

- Behar bezala aireztatutako eremuetan kargatu behar da telefonoa.
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, horien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.
- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.
- Babestu telefonoa uretatik eta hezetasunetik.
- Osagarriak kontuz erabili (entzungailuak, adibidez). Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.

## Telefonoaren funtzionamendu eraginkorra

### Gailu elektronikoak

- Telefono mugikor guztiek sor ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.
- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu baimenik eskatu gabe. Ez ipini telefonoa taupada-markagailuaren gainean, alegia, ez ipini alkandoraren poltsikoan, adibidez.
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.

Telebista, irrati, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

## Bide-segurtasuna

Kasu egin gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauei.

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.
- Gidatu arreta osoz.
- Erabili esku libreko gailu bat, baldin baduzu.

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Deiak egin edo deiei erantzun baino lehen, irten errepidetik eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.
- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektroniko batzuetan eragin dezake (autoko irratia edo segurtasun-ekipoa).
- Ibilgailuak airbag-a badu, ez oztoporik jarri haririk gabeko ekipo eramangarriekin edo finkoekin. Horien ondorioz, airbag-ak huts egin dezake, eta larri zauritu zaitezke.
- Kalean zaudela musika entzuten baduzu, ziurtatu bolumenaren intentsitatea arrazoizkoa dela, zure inguruan gertatzen denaz jabetu zaitezen. Oso garrantzitsua da hori, batik bat, zirkulazio-bideetatik hurbil.

## Kalteak entzumenean

Bolumen altuko soinuak entzuten denbora askoz egonez gero, baliteke zure belarriek kalteak jasatea. Horregatik, telefonoa belarrietatik hurbil ez piztea eta itzaltzea gomendatzen dizugu. Horrez gain, musikaren eta deien bolumena arrazoizko mailan ezartzea gomendatzen dizugu.

## Beirazko piezak

Zure telefono mugikorraren pieza batzuk beirazkoak dira. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handi bat hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili zure telefonoa hornitzaile baimendu batek kristala ordeztu arte.

## Eraispenak

Ez erabili telefonoa eraispenak egiten diren bitartean. Errespetatu murrizketak eta jarraitu arauei.

Lehergaiak egon litezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan.
- Ez erabili produktu kimiko edo erregaietatik hurbil.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoirik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko konpartimentuan.

## Hegazkinetan

Haririk gabeko gailuek interferentziak sor ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefonoa edo hegazkin-modua aktibatu hegazkinean sartu aurretik.
- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

## Haurrak

Ez utzi telefonoa haur txikien eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu telefonoak, eta, haiek irensten badituzte, itotzeko arriskua dute.

## Larrialdi-deiak

Beharbada, larrialdi-deiak ezingo dira sare mugikor guztietan egin. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko. Galdetu zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari.

## Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste bateria-sistemetan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- LGren bateriak eta kargagailuak bakarrik erabili. Bateriaren bizitza ahalik eta gehiena luzatzeko diseinatu dira LGren kargagailuak.
- Ez desmuntatu bateria, eta ez egin zirkuitulaburrik.

Garbi eduki bateriaren kontaktu metalikoak.

- Aldatu bateria, behar bezala ez dabilenean. Bateria ehunka aldiz karga daiteke hondatu baino lehen.
- Aspaldian erabili ez baduzu, kargatu egin behar duzu bateria, funtzionaltasuna ahalik eta handiena izan dadin.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).
- Ez utzi bateria toki hotz edo beroetan, errendimendua txikitu daiteke.
- Bateria desegoki batekin ordeztuz gero, lehertzeko arriskua dago.
- Bete fabrikatzailearen jarraibideak bateriak ezabatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.
- Bateria ordeztu behar baduzu, eraman hornitzailearengana edo hurbilen duzun LG Electronics-en zerbitzu-puntu baimendura, laguntza jasotzeko.
- Telefonoa kargatu ondoren, beti deskonektatu kargagailua korronte-hartunetik, kargagailuak energia alferrik kontsumi ez dezan.
- Sarearen konfigurazioaren, erabilera-ereduen, bateria-motaren eta ingurumen-kondizioen araberakoa da bateriaren iraupena.

# Ohar garrantzitsua

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuari deitu edo telefonoa zerbitzu teknikoari eraman aurretik, egiaztatu zure telefonoak dituen arazoak atal honetan deskribatzen diren.

## 1. Telefonoaren memoria

Telefonoaren memorian erabilgarri dagoen espazioa % 10a baino txikiagoa denean, telefonoak ezin du mezu berririk jaso. Telefonoaren memoria egiaztatu eta datu batzuk, aplikazioak edo mezuak, ezabatu behar dira, memorian espazio gehiago izateko.

**Aplikazioa kudeatzeko***:*

1. Hasierako pantailan, ukitu Aplicaciones fitxa, eta hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
2. Aplikazioak bistaratzean, mugitu eta hautatu desinstalatu nahi duzun aplikazioa.
3. Ukitu **Desinstalar** eta, gero, Aceptar, hautatutako aplikazioa desinstalatzeko.

## 2. Bateriaren iraupena optimizatzea

Karga artean bateriak duen iraupena handitzeko, bigarren mailan etengabe exekutatuta izan behar ez dituzun funtzioak deskonekta ditzakezu. Halaber, Aplikazioek eta sistemaren baliabideek bateriaren energia nola kontsumitzen duten gainbegira dezakezu.

**Bateriak gehiago iraun dezan***:*

- Deskonektatu erabiltzen ez dituzun irrati-komunikazioak. WiFi, Bluetooth edo GPS funtzioak ez badituzu erabiltzen, desaktiba itzazu Ajustes aplikazioaren bidez.
- Murriztu pantailaren distira eta ezar ezazu pantailaren itxarote-denbora laburragoa.

- Behar ez badituzu, deskonektatu Google Mail-en, egutegiaren, kontaktuen eta bestelako aplikazioen sinkronizazio automatikoa.
- Erabiltzaileek deskargatzen dituzten zenbait aplikaziok bateriaren iraupena murrizten dute. Telefonotik aplikazio horiek, eta horien datu eta doikuntza guztiak, desinstalatu beharko dituzu.

**Bateriaren karga-maila egiaztatzeko:**

1. Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones fitxa, eta hautatu Ajustes > Acerca del teléfono > Estado**.
2. Pantailaren goiko aldean ikus daitezke bateriaren egoera (kargatzen edo deskargatzen) eta maila (kargaren ehunekoa).

**Bateria zerk erabiltzen duen gainbegiratzeko eta kontrolatzeko:**

1. Hasierako pantailan, ukitu Aplicaciones fitxa, eta hautatu Ajustes > Acerca del teléfono > Uso de la batería.
2. Pantailaren goiko aldean ikus daiteke bateriaren erabilera-denbora. Elikatze-iturrira azken aldiz konektatu zenetik igaro den denbora adierazten du irudiak, eta, elikatze-iturri bati konektatuta badago, berriz, bateriarekin funtzionatzen egon den denbora. Pantailaren erdialdean agertzen da bateria erabiltzen duten aplikazioak edo zerbitzuak, gehien erabiltzen duenetik gutxienekora antolatuta.

## 3. Iturri irekiko sistema eragilea instalatzea

Telefonoan, fabrikatzaileak eman duen sistema eragilea erabili beharrean, iturri irekiko sistema eragilea instalatzen baduzu, baliteke telefonoak ongi ez funtzionatzea.

**OHARRA**: fabrikatzaileak eman duen sistema eragilearen ordez, beste bat instalatzen eta erabiltzen baduzu, bermearen estaldurarik gabe geratuko da telefonoa.

**OHARRA**: telefonoa eta datu pertsonalak babesteko, aplikazioak konfiantzazko iturrietatik soilik deskargatu; esaterako, Android Market-etik. Aplikazioren bat zuzen instalatuta ez badago, baliteke telefonoak ongi ez funtzionatzea edo akats larriren bat izatea. Aplikazio horiek eta horien datu eta doikuntza guztiak desinstalatu beharko dituzu telefonotik.

## 4. Desblokeatzeko eredua erabiltzea

Telefonoa babesteko balio duen desblokeatze-eredua ezartzeko da. Pantailaren desblokeatze-eredua sortzen lagunduko dizuten pantailak irekitzen ditu.

**OHARRA**: ohar hauek kontuan hartu behar dituzu blokeatze-eredua erabiltzean.

Garrantzitsua da ezarri den desblokeatze-eredua gogoratzea. Eredu okerra 5 aldiz erabiliz gero, ezingo duzu telefonora sartu. Desblokeatze-eredu okerrak 5 aldiz sartuta, Patrón olvidado aukera hauta dezakezu, eta zure Googleko kontuaren informazioa erabil dezakezu telefonoa desblokeatzeko. Googleko konturik ez baduzu, telefonoan Googleko konturik ez baduzu sartu edo ahaztu baduzu, **erabat berrabiarazi** daiteke telefonoa.

## 5. Modu segurua erabiltzea eta erabat berrabiaraztea

### Modu segurua erabiltzea

*** Telefonoaren funtzionamendu okerra eten eta berreskuratzeko**

1. Itzali telefonoa eta berrabiarazi. Telefonoa pizten ari dela, Android-en logotipoa agertzen denean, luze sakatu hasiera-tekla.

# Ohar garrantzitsua

Telefonoa pantaila nagusiraino martxan jarriko da eta “Modo seguro” azalduko da behean ezkerreko izkinan.

2. **Hautatu Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones,** aukeratu aplikazioa, eta, gero, hautatu **desinstalatzeko** ikonoa.
3. Aplikazioa desinstalatu ondoren, itzali eta berrabiarazi telefonoa.

*** Erabateko berrabiaraztea erabiltzea (jatorrizko doikuntzak berrezartzea)**

Jatorrizko egoera berreskuratzea lortzen ez baduzu, **erabateko berrabiaraztea** erabili telefonoa abiarazteko.

Telefonoa piztu eta blokeatze-pantaila agertzen denean, sakatu batera bolumena igotzeko, hasierako eta bilaketako teklak (bost segundoz). Bistaratze-pantaila agertzen denean, hautatu Aceptar telefonoa berrezartzeko.

Kontuan izan **berrabiarazte osoa** egitean telefonoko datu eta aplikazio guztiak ezabatuko direla eta ezingo direla berreskuratu.

**OHARRA**

Erabat berrabiarazten baduzu, erabiltzailearen aplikazio eta datu guztiak ezabatuko dira. Gogoratu datu garrantzitsuen segurtasun-kopia egin behar dela, telefonoa **erabat berrabiarazi** aurretik.

## 6. WiFi sareetara konektatzea

Telefonoaren WiFi konexioa erabiltzeko, ezinbestekoa da haririk gabeko sarbide-puntu baten bidez egitea (ingelesez, “AP”). Sarbide-puntu batzuk irekita daude, eta horietara konektatzea besterik ez duzu egin behar. Beste batzuk ezkutatuta daude edo bestelako segurtasun-funtzioak dituzte. Halakoetan, telefonoa konfiguratu egin behar da puntu horietara konektatu ahal izateko.

Deskonektatu WiFi konexioa erabiltzen ari ez zarenean; hala, bateriak gehiago iraungo du.

**WiFi konexioa aktibatu eta WiFi sare bati konektatzeko**

1. Hasierako pantailan, ireki **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Configuración de WiFi**.
2. Ukitu **WiFi**, funtzio hori aktibatzeko eta eskura dauden WiFi sareak bilatzen hasteko.
- Erabilgarri dauden WiFi sareen zerrenda bistaratzen da. Sare seguruak giltzarrapo-ikonoarekin bistaratuko dira.
3. Ukitu sare bat horri konektatzeko.
- Sarea irekia bada, eskatuko zaizu sare horri konektatzea nahi duzula baieztatzea **Establecer conexión** ukituta.
- Sarea babestuta badago, eskatuko zaizu pasahitza edo bestelako egiaztagiriren bat sartzea. (Sare-administratzaileari eskatu xehetasunak).
4. Egoera-barran ikusten dira WiFi egoera adierazten duten ikonoak.

## 7. MicroSD txartela erabiltzea

Irudiak, musika- eta bideo-fitxategiak bezala, kanpo-memoria batean soilik gorde daitezke.

Telefonoan integratutako kamera erabiltzen hasi aurretik, ezinbestekoa da telefonoan microSD memoria-txartela txertatzea.

Memoria-txartelik txertatzen ez baduzu, ezingo dituzu gorde egindako argazkiak edo bideoak.

**OHARRA:** aplikazioak telefonoaren barne-memorian soilik gorde daitezke.

**OHARRA**

Ez ezazu memoria-txartela sartu edo atera telefonoa piztuta dagoenean. Hala eginez gero, kalte egin diezaiokezu memoria-txartelari eta telefonoari; halaber, memoria-txartelean gordeta dauden datuak ere honda daitezke. Memoria-txartela era seguruan ateratzeko, hautatu Ajustes > Almacenamiento > Desactivar tarjeta SD.

## 8. Aplikazioak irekitzea eta aldatzea

Android-ekin erraza da lan bat baino gehiago batera egitea; izan ere, irekitako aplikazioek exekutatzen jarraitzen dute beste aplikazio bat irekitzean. Ez dago aplikazio batetik atera beharrik beste bat irekitzeko. Hainbat aplikazio izan ditzakezu irekita, eta batetik bestera mugi zaitezke. Android-ek aplikazio bakoitza kudeatzen du, eta bakoitza behar denean gelditzen edo abiarazten du; hala, aktibo  ez dauden aplikazioek ez dute baliabiderik kontsumituko beharrik ez dagoenean.

**Erabiltzen ari den aplikazioa geldiarazteko**

1. Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
2. Lerratu nahi den aplikazioraino, eta ukitu **Forzar detención,** horren erabilera geldiarazteko.

## 9. Telefonoa ordenagailu batera USB bidez konektatzea

**OHARRA:** LG PC Suite (http://www.lgmobile.com) beharko duzu, GT540a, USB kablearen bidez, ordenagailuarekin erabiltzeko.

1. Erabili telefonoarekin eman zaizun USB kablea, telefonoa ordenagailuaren USB portura konektatzeko. USB kablea konektatuta dagoela jakinaraziko dizun oharra jasoko duzu.
2. Ireki iragarlea, eta ukitu Conectado por USB.

3. Ukitu **Activar**, telefonoaren microSD txartelaren eta ordenagailuaren artean fitxategiak mugitzea nahi duzula baieztatzeko.

Telefonoa USB biltegiratze-gailu gisa konektatuta dagoenean, jakinarazpena jasoko duzu. Telefonoaren microSD txartela disko-unitate gisa agertuko da ordenagailuan. Une horretan, fitxategiak kopia ditzakezu microSD txarteletik edo alderantziz.

**OHARRA: desblokeatu pantaila datu-konexioa erabiltzean.**

Pantaila ilundu egingo da datu-konexioa erabiltzen ari denean, eta denbora-tarte batez ukitzen ez bada. LCD pantaila berriz pizteko, nahikoa duzu pantaila ukitzearekin.

**Iradokizuna**

Telefonoaren microSD txartela berriz erabiltzeko, iragarlea ireki behar da nahitaez eta “Desactivar almacenamiento USB” ukitu.

Denbora-tarte horretan ezingo duzu telefonotik microSD txartelera sartu. Beraz, ezingo dituzu erabili microSD txartela behar duten aplikazioak, hala nola kamera, galeria eta musika. Telefonoa ordenagailutik deskonektatzeko, adi jarraitu zure ordenagailuak hardwarea era seguruan erauzteko eta microSD txartela USB-gailu gisa deskonektatzeko ematen dituen oharrak. Hala, ez duzu galduko txarteleko informazioa.

1. Deskonektatu zure ordenagailuan microSD txartelari dagokion unitatea.
2. Ireki iragarlea, eta ukitu **Desactivar almacenamiento USB**.
3. Irekiko den elkarrizketa-koadroan, ukitu **Desactivar**.

# Telefonoa ezagutzea

**Menuko tekla**

- Aplikazioaren menua irekitzen du eta eskura dauden aukerak bistaratzen ditu.

**Bidaltzeko tekla**

- Telefono-zenbakiak markatzen ditu, eta sarrerako deiei erantzuten die.

**Hasteko tekla**

- Hasierako pantailara itzultzen da beste edozein pantailatik.




**Entzungailua**

**Atzera egiteko tekla**

- Aurreko pantailara itzultzen da.

**Amaitzeko/pizteko/blokeatzeko tekla**

- Deia amaitu edo deiari uko egiten dio.
- Telefonoa pizten eta itzaltzen du tekla luze sakatuta.
- Pantaila itzali eta terminala blokeatzen du.

**Mikrofonoa**

**Bolumen-teklak**

- Hasierako pantailan: txirrinaren bolumena kontrolatzen du.
- Telefonoz hitz egiten ari zarela: entzungailuaren bolumena kontrolatzen du.
- Pista bat erreproduzitzean: bolumena kontrolatzen du etengabe.



**Kargagailuaren konektorea (Micro USB kablea)**

**Bilaketa-tekla**

- Sarean eta telefonoko edukietan bilaketak egiten ditu.

**Kameraren tekla**

- Luze sakatu tekla, kameraren menura zuzenean sartzeko.



## SIM txartela eta bateria sartzea

Zure telefono berria arakatzen hasi aurretik, konfiguratu egin behar duzu. SIM txartela eta bateria sartzeko:

1 Ezarri telefonoa atzeko aldea gorantz begira dagoela eta kendu estalkia. Atzeko estalkia kentzeko, tinko sakatu bi erpuruekin estalkiaren bi aldeei, eta lerratu estalkia kameraren lentearen azpian geratzen den arte.





2 Mugitu SIM txartela dagokion tokirantz. Ziurtatu txartelaren urre-koloreko kontaktuak behera begira daudela.



3 Ezarri bateria bere tokian, telefonoaren bornean bateriaren kontaktuekin lerrokatuta. Ondoren, sakatu suabe-suabe zuzen sar dadin.



4 Berriz jarri bateriaren estalkia, eta lerratu irtenguneak klik egin arte.



**OHARRA:** SIM txartela sartu eta piztu ondoren, telefonoa ez bada sare bati konektatzen, jarri harremanetan zerbitzuen hornitzailearekin, zure sarbide-puntuaren izenari buruzko xehetasun gehiago jasotzeko.

## Telefonoa kargatzea

Lerratu GT540aren alboan dagoen kargagailuaren konektorearen estalkia. Sartu kargagailuaren kablea, eta entxufatu elektrizitate-hartune batera. GT540a kargatzen utzi behar da, sinboloa agertu arte.

**OHARRA:** lehen karga osorik egin behar da, bateriaren bizitza erabilgarria hobetzeko.



**OHARRA**: GT540ak barne-antena du. Kontuz ibili pieza hori kaltetu edo marratu gabe, horren errendimendua murriztuko bailitzateke.

## Memoria-txartela instalatzea

Multimedia-fitxategi gehigarriak gordetzeko –telefonoko kamerarekin hartutako irudiak gordetzeko, adibidez–, memoria-txartela sartu behar da telefonoan. Memoria-txartela sartzeko:

1 Itzali telefonoa memoria-txartela sartu edo atera aurretik. Kendu atzeko estalkia.



2 Ireki zirrikituaren babesa eta sartu memoria-txartela zirrikituan. Egiaztatu urre-koloreko kontaktu-eremua beherantz jarrita dagoela.



3 Itxi zirrikituaren tapa babeslea.



**⚠ OHARRA**

Ez ezazu memoria-txartela sartu edo atera telefonoa piztuta dagoenean. Hala eginez gero, kalte egin diezaiokezu memoria-txartelari eta telefonoari; halaber, memoria-txartelean gordeta dauden datuak ere honda daitezke.

## Memoria-txartela formateatzea

Baliteke memoria-txartela dagoeneko formateatua egotea. Hala ez bada, formateatu egin beharko duzu erabili ahal izateko.

**OHARRA**: formateatzean, txartelaren fitxategi guztiak ezabatuko dira.

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.

2 Mugitu, eta ukitu **Ajustes**.

3 Mugitu eta ukitu Almacenamiento **> Formatear tarjeta SD**.

4 Ukitu **Formatear tarjeta SD**, eta, ondoren, egiaztatu egindako aukera.

5 Desblokeatze-eredua konfiguratu baduzu, sartu ezazu eta hautatu **Formatear**. Txartela formateatu egingo da, eta prest egongo da erabiltzeko.

**OHARRA**: memoria-txartelean edukirik badago, karpeten egitura aldatu egingo da formateatzean, fitxategi guztiak ezabatuko baitira.

# Hasierako pantaila

## Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak

Hona hemen telefonoaren bidez nabigatzeko iradokizun batzuk.

**Ukitua**: menu edo aukera bat hautatzeko, edo aplikazio bat irekitzeko, egin ukitu bat.

**Luze sakatzea**: menu bateko aukerak irekitzeko edo mugitu nahi duzun objektuari heltzeko, ukitu ezazu eta luze sakatu.

**Arrastatzea**: zerrenda batean gora eta behera mugitzeko edo poliki mugitzeko, arrastatu hatza ukipen-pantailan zehar.

**Mugimendu azkarra**: zerrenda batean azkar lerratzeko edo azkar mugitzeko, egin lerratze-mugimendu azkarra ukipen-pantailan (arrastatze azkarra egin eta askatu).

## Oharra

- Elementu bat hautatzeko, ukitu ikonoaren erdialdea.
- Ez sakatu gogorregi. Pantaila sentikorra da, eta ukitu arin eta irmoak detektatzeko gai da.
- Erabili atzamarraren punta nahi duzun aukera ukitzeko. Saiatu beste teklarik ez ukitzen.

## Ukipen-pantaila kalibratzea

Gailuaren pantaila kalibratzeko, pantailan mugitzen ari den gurutzearen erdigunea ukitu beharko duzu. Prozesu horri esker, egiaztatu egiten da pantaila hatzarekin ukitzean seinalatzen duzun elementua aktibatzen dela.

Telefonoak ez badie pantailako ukituei erantzuten, urrats hauek jarraitu berriro kalibratzeko.

1. Ukitu A**plicación > Ajustes > Sonido y pantalla** eta lerratu honaino: **Ajustes de pantalla táctil**.
2. Ukitu **Calibración de pantalla táctil** eta jarraitu pantailan agertzen dien jarraibideei.
3. Kalibratzea amaitu ondoren, hauen artean hautatu: **Comprobar calibración** eta **Guardar sin comprobar**. Azkenik, kalibratzea amaitu.

## Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea

GT540a erabiltzen ari ez bazara, blokeo-pantailara itzuliko da.

Telefonoa denbora-tarte batez erabiltzen ez baduzu, hasierako pantailaren edo une horretan dagoenaren ordez, blokeatze-pantaila agertuko da. Aldi berean, pantaila ilundu egingo da bateria aurrezteko. Pantaila berriro ikusteko, sakatu **bidaltze**-, **hasiera**- edo **pizte**-tekla. Blokeatze-pantaila bistaratuko da. Ukitu giltzarrapoaren ikonoa, eta lerratu hatza eskuinerantz hasierako pantaila desblokeatzeko. Irekita zegoen azken pantaila bistaratuko da.

# Hasierako pantaila

## Hasierako pantaila erabiltzea

Ukitu **Aplicaciones** fitxa pantailaren beheko aldean.

Hor ikusiko dituzu instalatuta dauden aplikazio guztiak.




**OHARRA**: hasierako pantailako irudi batzuk ezberdinak izan daitezke telefono-hornitzailearen arabera.

## Lehenetsitako hasierako orria hautatzea

Bi hasierako pantailatan oinarritzen da erabiltzailearen interfazea: **LGrena** eta **Android-ena**.

Nahi duzun hasierako pantaila ezar dezakezu lehenetsi gisa.

Lehenetsitako hasierako pantailaren doikuntza aldatu nahi baduzu, hautatu aplikazio-menuko **hasierako pantailaren hautagailua**.

# LGren hasierako pantaila

Panelak ikusteko, lerratu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz. Panel bakoitza widget-ekin pertsonaliza dezakezu; zure aplikazio eta karpeta gogokoenetarako sarbide zuzenak dira widget-ak.




**Iradokizuna**

Pantailaren beheko aldeko aplikazio-fitxan ikus daitezkeen puntu txikiek adierazten dute zein paneletan zauden.

# Hasierako pantaila

LGren hasierako pantailan, beheko aldean agertzen dira laster-teklak. Laster-teklen bidez, eguneroko funtzioetan sar zaitezke ukitu bakarrarekin.



Ukitu **telefonoaren** ikonoa ukipen bidezko teklatua ireki eta dei bat egiteko.

Ukitu **mezuen** ikonoa mezuen menura sartzeko. Hemendik, mezu berri bat sor dezakezu.

Ukitu **aplikazioen** ikonoa Aplicaciones menua irekitzeko.

Ukitu eta gorantz edo beherantz mugitzea besterik ez da behar aplikazioetan zehar mugitzeko.

# Android-en hasierako pantaila

Panelak ikusteko, lerratu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz. Panel bakoitza widget-ekin pertsonaliza dezakezu; zure aplikazio eta karpeta gogokoenetarako sarbide zuzenak dira widget-ak.




Ukitu **aplikazioen** ikonoa Aplicaciones menua irekitzeko.

Ukitu eta gorantz edo beherantz mugitzea besterik ez da behar aplikazioetan zehar mugitzeko.



## Widget-ak gehitzea hasierako pantailari

Hasierako pantaila pertsonaliza dezakezu sarbide zuzenak, widget-ak edo karpetak erantsita. Telefonoa erosoago erabiltzeko, erantsi zure gogoko widget-ak hasierako pantailara.

**OHARRA**: **LG**ren zein **Android**-en **hasiera**-pantailek dute funtzio hori. Hasierako pantailara ikonoak erants ditzakezu:

1 Hasierako pantailan, ukitu **menu**-tekla eta ireki **Opciones** fitxa. Ondoren, hautatu **Añadir**.

2 **Pantaila nagusiko Añadir a pantalla** menuan, ukitu erantsi nahi duzun elementua.

3 Adibidez, hautatu **Carpetas**, eta ukitu aukera hori.

4 Hautatu **Contactos con números de teléfono**, eta ukitu aukera hori.

5 Karpeta-ikono berria ikusiko duzu hasierako pantailan. Lerratu panelean nahi duzun tokiraino, eta altxa hatza hasierako pantailatik.

Hasierako pantailan aplikazio baten ikonoa kentzeko:

1 Ukitu eta luze sakatu ikonoa. **Aplikazioaren** ikonoa aldatu eta **zakarrontziaren** ikonoa agertuko da.

2 Arrastatu aplikazioaren ikonoa zakarrontziaren ikonoraino.

## Duela gutxi erabilitako aplikaziora itzultzea

1 Ukitu eta luze sakatu hasiera-tekla. Azkenak erabilitako aplikazioen ikonoak dituen leihoa agertuko da pantailan.

2 Ukitu ireki nahi duzun aplikazioaren ikonoa. Halaber, **itzultzeko** tekla uki dezakezu uneko aplikaziora itzultzeko.

## Iragarlea

Pantailaren goiko aldean luzetara dago iragarlea. Ukitu eta lerratu iragarlea beherantz. Horrez gain, hasierako pantailan **menuko** tekla ukitu eta **Notificaciones** hauta dezakezu. Hor, WiFi eta Bluetooth konexioen egoera egiazta dezakezu, baita bestelako jakinarazpenak irakurri ere.




## Egoera-barra ikustea

Egoera-barran telefonoaren informazioa bistaratzen duten ikonoak daude. Besteak beste, seinalearen intentsitatea, mezu berririk dagoen ala ez, bateriaren karga-maila eta Bluetootha edo datu-konexioak aktibo dauden adierazten dute. Beheko taulan agertzen da egoera-barrako ikonoen esanahia.




**[ Egoera-barra ]**

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
|  | Ez dago SIM txartelik |
|  | Seinalerik gabe |
|  | WiFia aktibatua eta sarbide-puntu bati konektatua |
|  | Kabledun entzungailuak |

# Hasierako pantaila

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
| | Deiak desbideratzea |
| | Deia zain |
| | Telefonoa bozgorailuarekin |
| | Deia isiltzea |
| | Galdutako deia |
| | Bluetootha aktibatuta |
| | Bluetootha konektatuta |
| | Sistemaren oharra |
| | Alarma |
| | Ahots-postontzi berria |
| | Hegaldiko modua |
| | Isilik |
| | Bibratzea |

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
| | SD txartela falta da |
| | Bateria guztiz kargatua |
| | Bateria kargatzen |
| | Datuen sarrera |
| | Datuen irteera |
| | Datuen sarrera eta irteera |
| | USBtik PCra |
| | Deskargatu |
| | Kargatu |
| | GPSa datuak jasotzen |
| | GPSa aktibatuta |
| | Zerbitzu-mezuak |
| | Doikuntza-mezua |

# Googleko kontu bat konfiguratzea

Telefonoan Googleko aplikazioa lehen aldiz irekitzean, zure Googleko kontuarekin saioa hasteko eskatuko zaizu. Googleko konturik ez baduzu, bat sortu nahi duzun galdetuko dizu.

## Googleko kontu bat sortzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones**  fitxa aplikazioen menua irekitzeko.

2 Ukitu **Gmail** eta, gero, ukitu **Siguiente>Crear**, Google Mail-en konfigurazio-laguntzailea abiarazi eta konfiguratzeko.

3 Ukitu testu-eremu bat ukipenezko teklatua irekitzeko. Idatzi zure izena eta Googleklo konturako erabiltzaile-izena. Testua sartzean, hurrengo testu-eremura mugi zaitezke teklatuan **Siguiente** ukituta.

4 Izena eta erabiltzaile-izena idatzi ondoren, ukitu **Siguiente**. Telefonoa Googlen zerbitzariekin komunikatuko da eta erabiltzaile-izen hori erabil daitekeen egiaztatuko du.

5 Idatzi pasahitza eta berretsi. Ondoren, argibideei jarraitu eta kontuari buruz eskatzen den informazioa sartu. Zerbitzariak kontua sortu arte itxaron.

## Googleko kontuarekin saioa hastea

1 Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, hautatu **Acceder**. Itxaron saioa hasi arte.

2 Saioa hasi ondoren, Google Mail erabil dezakezu, eta telefonoak dituen Googleko zerbitzu guztiez baliatu.

# Googleko kontu bat konfiguratzea

3 Telefonoan Googleko kontua konfiguratu ondoren, telefonoa sareko Googleko kontuarekin sinkronizatuko da automatikoki.

(Ezartzen den sinkronizazio-konfigurazioaren araberakoa da hori.) Saioa hasi ondoren, Google Mail, Google Calendar, Google Market eta Google Maps erabil ditzakezu. Halaber, Android Market-etik aplikazioak deskarga ditzakezu, zure konfigurazioaren segurtasun kopiak egin ditzakezu Googlen zerbitzarietan, eta telefonoak dituen Googlen gainerako zerbitzuen abantaila guztiak aprobetxatzeko aukera izango duzu.

# Deiak

## Deitzea

1 Ukitu menua irekitzeko.

2 Sartu zenbakia teklatuan. Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu **ezabatze**-ikonoa.

3 Ukitu **deiaren** ikonoa deia egiteko.

4 Deia amaitzeko, sakatu Finalizar llamada edo arrastatu pantailako Finalizar llamada ikonoa.

> **IRADOKIZUNA!:** Nazioarteko deiak egitean + ikurra sartzeko, luze sakatu 0+.

## Kontaktuei deitzea

1 Ukitu kontaktuen zerrenda irekitzeko.

2 Mugitu zerrendan edo sartu deitu nahi duzun kontaktuaren lehen letrak **Buscar**-en bidez.

3 Zerrendan, ukitu deitu nahi duzun kontaktua, eta hautatu zenbakia, bat baino gehiago baldin baditu.

## Dei bati erantzutea edo ez onartzea

Telefonoak jotzen badu, sakatu **bidaltzeko** tekla erantzuteko. Halaber, **deiaren** ikonoa eskuinerantz lerra dezakezu. Sakatu **amaitzeko** tekla, sarrerako dei bat ez onartzeko.

> **IRADOKIZUNA!:** Telefonoak jotzen duenean, ukitu eta lerratu ezkerrerantz isilik moduaren ikonoa, isilik modura aldatzea nahi baduzu.

## Deiaren bolumena doitzea

Dei bat martxan dela bolumena doitzeko, erabili telefonoaren ezkerreko aldeko goranzko eta beheranzko botoia.

## Bigarren deia egitea

1 Lehen deia egiten ari zarela, sakatu **menuko** tekla eta gero ukitu Gero, hautatu markatu nahi duzun zenbakia.

2 Markatu zenbakia edo bilatu kontaktua.

3 Ukitu **deiaren** ikonoa deia egiteko.

4 Bi deiak agertuko dira deiaren pantailan. Lehen deia blokeatu egingo da, eta zain jarri.

5 Ukitu dei batetik bestera aldatzeko. Halaber, ukitu telefono-konferentzia egiteko.

6 Aktibo dauden deiak amaitzeko, ukitu **Finalizar llamada**. Dei aktiborik ez badago, **atxikitako deia** amaituko da. Dei guztiak batera amaitzeko, ukitu **menuko** tekla eta hautatu **Fin.Llam. (Todas)**

**OHARRA**: egindako dei guztiak kobratuko zaizkizu.

## Deien erregistroak ikustea

Hasierako pantailan, sakatu **bidaltzeko** tekla **deien erregistroa** ikusteko.

Egindako dei guztien zerrenda osoa (jasotakoena eta galdutakoena) ikusiko duzu.

**IRADOKIZUNA!**: Ukitu dei-erregistroko banakako edozein sarrera, horren data, ordua eta iraupena ikusteko.

**IRADOKIZUNA!**: Ukitu **menuko** tekla eta, ondoren, ukitu **Borrar registro de llamadas** gordetako elementu guztiak ezabatzeko.

# Deien konfigurazioa

Deien konfigurazioa –deien desbideratzea eta zain dagoen deiarena, esaterako– zein operadoreak eskaintzen dizkizun gainerako funtzio bereziak doitu ditzakezu.

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.
2 Ukitu **Ajustes**.
3 Ukitu **Ajustes de llamadas** eta hautatu doitu nahi dituzun aukerak.

**Números de marcación fija**: Hautatu Números de marcación fija, zure telefonotik deitzeko zenbaki-zerrenda bat aktibatu eta konpilatzeko. Operadoreak emandako PIN2 kodea behar duzu. Markaketa finkoko zerrenda sortzen baduzu, zerrenda horretako zenbakietara bakarrik deitu ahal izango da telefonotik.

**Buzón de voz**: ahots-postontziaren zenbakia konfiguratzea.

**Desvío de llamadas**: hitz egiten ari zarenean, erantzuten ez duenean eta abar deiak nola desbideratzen diren doi dezakezu. Hautatu hauen artean: **Desviar siempre, Línea ocupada, Llamada sin respuesta** edo **No se establece la llamada**. Idatzi deiak zein zenbakitara desbideratzea nahi duzun.

**OHARRA**: deien desbideratzeak gastuak sortzen ditu. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri sare-hornitzailearekin harremanetan.

**Restricción de llamadas**: deiak noiz murriztu nahi dituzun hautatzeko balio du. Sartu deiak murrizteko pasahitza. Galdetu sare-operadoreari zerbitzu honi buruz.

# Deiak

**Costo**: deiei aplikatzen zaien kostuak bistaratzeko. Zerbitzu hori sarearen araberakoa da, eta zenbait operadorek ez dute baimentzen.

**Hora de llamada**: deien iraupena bistaratzeko, markatutako deiak, jasotako deiak eta azken deia barne.

**Ajustes de llamadas GSM**: Parametro hauek alda ditzakezu:

**ID de emisor**: adierazi deiaren hartzaileak zure zenbakia ikus dezan nahi duzun.

**Llamada en espera**: aktibatuta badago, telefonoz hitz egiten ari zarela sartzen diren deien berri emango dizu terminalak.

**Seleccionar línea**: linea hautatzeko.

# Kontaktuak

Telefonoari kontaktuak gehi diezazkiokezu, eta Googleko kontuko kontaktuekin edo kontaktuen sinkronizazioarekin bateragarriak diren bestelako kontuekin sinkroniza ditzakezu.

## Kontaktu bat bilatzea

Kontaktua bilatzeko bi era daude:

**Hasierako pantailan**:

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** kontaktuetara sartzeko.

2 Ukitu **Busqueda** de eta sartu kontaktuaren izena teklatuaren bidez.

**IRADOKIZUNA!**: Talde batean bilaketa egiteko, ukitu pantailaren goiko aldeko **Contactos** fitxa eta hautatu **Grupos**. Talde guztien zerrenda bistaratuko da.

**Menu nagusitik**

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.

2 Ukitu **Contactos** eta hautatu **Búsqueda de.**

## Kontaktu berri bat gehitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos**, eta gero ukitu **Contacto nuevo**.

2 Kontaktu berriari irudi bat gehitu nahi badiozu, ukitu  Dagoeneko badauden irudiak erabil ditzakezu edo argazki berri bat egin.

3 Ukitu testu-eremu bat ukipen-teklatua irekitzeko eta kontaktu berriaren izena.

4 Hautatu kontaktu-mota **Teléfono** fitxa sakatuta eta hauen artean hautatuta: **Teléfono, SIM** eta **Google**.

5 Ukitu kontaktuaren informazio-kategoria bat eta idatzi xehetasunak.

6 Sakatu **Listo** kontaktua gordetzeko.

## Gogoko kontaktuak

Maiz deitzen dituzun kontaktuak gogoko gisa sailka ditzakezu.

### Gogokoen zerrendan kontaktu bat gehitzeko

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** kontaktuetara sartzeko.

2 Ukitu kontaktu bat horren xehetasunak ikusteko.

3 Ukitu kontaktuaren izenaren eskuinean dagoen izarra. Izarrak urre kolorea hartuko du. (Zenbakiak telefonoaren memorian lehenagotik gordea egon behar du)

### Gogokoen zerrendatik kontaktu bat ezabatzeko

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** kontaktuetara sartzeko.

2 Ukitu **Favoritos** fitxa eta hautatu kontaktu bat, horren xehetasunak ikusteko.

3 Ukitu kontaktuaren izenaren eskuinean dagoen urre koloreko izarra. Izarrak kolore grisa hartuko du eta kontaktua gogokoen zerrendatik kenduko da.

## Talde bat sortzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** kontaktuetara sartzeko.

2 Ukitu **Nuevo grupo** eta, ondoren, sartu talde berriaren izena.

3 Tonu bat hauta dezakezu talde sortu berriarentzat.

4 Ukitu **Listo** taldea gordetzeko.

**OHARRA**: talde bat ezabatzen baduzu ere, talde horri esleitutako kontaktuak ez dira ezabatzen. Kontaktu-zerrendan gordeta jarraituko dute.

# Mezuak/Posta elektronikoa

## Mezuak

GT540aren bidez, SMS eta MMSak konbinatzen dira menu intuitibo eta erabilerraz batean.

## Mezuak bidaltzea

1 Ukitu **mezuen** ikonoa hasierako pantailan, eta ukitu Mensaje nuevo mezu zuria irekitzeko.

2 Sartu telefono mugikorreko zenbakia **Para**: eremuan. Telefono-zenbakia sartzen ari zarela, zenbakiekin bat datozen kontaktuak agertuko dira. Proposatzen diren hartzaileetako bat ukitu edo telefono-zenbakia sartzen jarrai dezakezu. Hainbat kontaktu gehitu daitezke.

**OHARRA**: kobratu egiten da taldeko hartzaile bakoitzari bidalitako testu-mezua.

3 Ukitu ondoren agertzen den mezu-eremua, mezua idazten hasteko.

4 Ukitu menuko tekla aukera-menua irekitzeko. Hauen artean aukeratu: **Vista previa, Llamar, Añadir asunto, Adjuntar, Enviar, Insertar emoticono, Descartar, Todas las cadenas** eta **Añadir a contactos.**

5 Ukitu **Enviar** mezua bidaltzeko.

6 Zure mezua duen mezu-pantaila irekiko da. Erantzunak pantailan agertuko dira. Mezu gehiago kontsultatu eta bidaltzen dituzun bitartean, mezu-katea sortuko da.

⚠ **OHARRA**: 160 karaktereko muga aldatu egin daiteke herrialde batetik bestera, SMSa kodifikatzeko erabiltzen den moduaren arabera.

⚠ **OHARRA**: SMS bati irudi-, bideo- edo soinu-fitxategi bat gehitzen badiozu, MMS bihurtzen da automatikoki, eta horri dagokion kostua kobratuko zaizu.

**OHARRA**: deitzen ari zarela SMS mezua jasotzen baduzu, ez da alertarik piztuko, baina barra adierazlean ikusiko duzu.

## Testua idaztea

**Teklatua**




XT9 Ukitu ikono hau T9 testu prediktiboa sartzeko modua aktibatzeko. Ukitu ikono hau, idazteko hizkuntza aldatzeko.

123 @#+ Ukitu ikono hau zenbaki-teklatuaren, sinboloen eta testuen artean mugitzeko.

⚙ luze sakatu hauek ikusteko: Ajustes editor, Diseños del teclado, Idioma de escritura, Método de introducción de texto eta Diccionario del usuario. Erabili Shift, testua sartzeko modu guztietan (adibidez, letra larriak edo xeheak) teklatu-modu batetik bestera mugitzeko.

Zuriunea sartzeko ukitu 0 ␣.

## T9 modua

T9 moduak hiztegi integratu bat erabiltzen du; hiztegi horrek erabiltzaileak idazten dituen hitzak ezagutzen ditu, ukitzen dituen tekla-sekuentzien arabera.

Idazten ari den hitza aurreikusten du, eta alternatibak proposatzen ditu.

## Abc modua

Idatzi nahi duzun letrari dagokion tekla sakatuta idazten da modu honetan. Tekla behin, bitan, hirutan edo lautan sakatu behar duzu, pantailan nahi duzun letra azaldu arte.

## 123 modua

Modu honek zenbakiak testu-mezuan azkarrago sartzeko aukera ematen du (adibidez, telefono-zenbaki bat). Ukitu digituei dagozkien teklak, testua idazteko modura eskuz pasatu aurretik.

## Letra azentudunak idaztea

Testua sartzeko hizkuntza gisa frantsesa edo gaztelania hautatzen baduzu, hizkuntza bakoitzaren karaktere bereziak sar ditzakezu (adibidez, "á"). Alfabetoari dagokion letra desagertzen denean, tekla bera behin baino gehiagotan sakatu sartu nahi duzun karaktere berezia ikusi arte.

## Adibidea

"á" idazteko luze sakatu "a" tekla.

"a" karakterea desagertzean, behin baino gehiagotan sakatu "a" tekla pantailan "á" agertu arte. Karaktere bereziak sar ditzakezu letra hori luze sakatuta.

## Posta elektronikoa konfiguratzea

Kanpora joaten zarenean, harremanetan jarrai dezakezu GT540 telefonoaren posta elektronikoko funtzioei esker. POP3 edo IMAP4 posta elektronikoko kontu bat konfiguratzea erraza da, eta azkar egin daiteke.

1 Hasierako orrian, ukitu **Aplicaciones** fitxa eta gero **E-mail** kontaktuen zerrenda irekitzeko. Halaber, hasierako pantailan **E-mail** uki dezakezu zuzenean sartzeko.

2 Posta elektronikoko kontua konfiguratu gabe badago, abiarazi posta elektronikoa konfiguratzeko laguntzailea.

**IRADOKIZUNA!:** Posta elektronikoko kontu bat definituta badago, laguntzailea ez da automatikoki aktibatzen.

## Mezu elektroniko bat bidaltzea kontu berri baten bidez

1 Ukitu hasierako pantailako E-mail ikonoa, eta, gero, ukitu  mezu berria irekitzeko.

2 Sartu hartzailearen helbidea eta idatzi zure mezua. Irudi-, bideo-, audio-fitxategiak eta dokumentu-formatuak ere erantsi ditzakezu.

3 Ukitu , mezu elektronikoa bidaltzeko.

**IRADOKIZUNA!:** WiFi konexioa aktibo dagoela, posta elektronikoko mezuak WiFi bidez bidaltzen eta jasotzen dira.

## Posta elektronikoa berreskuratzea

Mezu berriak dauden ikusteko, kontua ikus dezakezu (eskuz edo automatikoki). Eskuz egiteko:

1 Ukitu **E-mail** ikonoa hasierako pantailan.

2 Ukitu erabili nahi duzun kontua.

3 hautatuz gero, GT540 zure posta-kontura konektatu eta mezu berriak berreskuratuko dituzu.

## Posta elektronikoko kontuaren doikuntzak aldatzea

Posta elektronikoaren doikuntzak nahi bezala alda ditzakezu.

1 Ukitu **E-mail** ikonoa hasierako pantailan, eta ukitu nahi duzun kontua.

2 Ukitu **menuko** tekla aukera-menua irekitzeko, eta ukitu **Ajustes**.

3 Aukera hauek alda ditzakezu: **Ajustes de cuenta, Ajustes generales, Opciones de descarga** eta **Mensaje spam**.

## Izenaren arabera antolatzea

Beste pertsona bati bidalitako edo harengandik jasotako mezuak (SMSak eta MMSak) ordena kronologikoan bistaratu daitezke, hizketaldiaren ordena logikoari eusteko.

**OHARRA**: MMS mezua bidaltzean, ez da entregei buruzko txostenik agertuko baina ikonoa ikusiko duzu.

## Aurpegierak erabiltzea

Alaitu zure mezuak, aurpegierak erabiliz.

Mezu berria idaztean, ukitu **menuko** tekla, eta, gero, hautatu **Insertar emoticono**.

## Mezuen doikuntzak aldatzea

GT540ren mezuen doikuntzak aurrez ezarrita daude; beraz, hasiera-hasieratik bidal daitezke mezuak.

Doikuntzak zure lehentasunen arabera alda ditzakezu.

Ukitu hasierako pantailako **mezuen** ikonoa, eta, gero, ukitu menuaren tekla. Sakatu **Ajustes**.

**< Configuración de SMS >**

**Informes de entrega**: aktibatu mezuak entregatu izanaren berrespena jasotzeko.

**Administrar mensajes de SIM**: zure SIM txartelean gordetako mezuak kudeatzeko balio du.

**Período de validez**: mezua mezu-zentroan biltegiratuta zenbat denboraz egongo den hautatzeko.

**Centro de mensajes de texto**: mezu-zentroaren xehetasunak idazteko.

**< Configuración de SMS >**

**Informes de entrega**: entregatu izanaren jakinarazpena eskatu ala ez hautatzeko.

**Informe de leídos**: mezu bat bidaltzen den bakoitzean mezua irakurri izanaren txostena eskatu ala ez hautatzeko.

**Recuperación auto**: aktibatu mezuak automatikoki berreskuratzeko.

**Recup. auto. en itinerancia**: aktibatu mezuak berreskuratzeko mugikortasunean zaudenean.

**Establecer prioridad**: MMSen lehentasun-maila hautatzeko.

**Período de validez**: mezua mezu-zentroan biltegiratuta zenbat denboraz egongo den hautatzeko.

## Sortzeko modua

- **Restringido**: modu horretan, MMS gailu bezeroak Core MM Content Domain-en edukiarekin soilik sor eta bidal ditzake mezuak.
- **Oharra**: modu horretan, MMS gailu bezeroak erabiltzailea gidatuko du Core MM Content Domain-en edukiarekin soilik sortzeko eta bidaltzeko mezuak. Erabiltzailea gidatzeko, lau ohar-elkarrizketa agertuko dira.
- **Libre**: modu hori hautatuz gero, MMS bezeroak mezuari edozein eduki gehitzen utz diezaioke erabiltzaileari.

**Recibir anuncio**: publizitate-mezuak jasotzeko.

**< Otros ajustes >**

**Servicio de mensajería**: zerbitzu-mezuak jaso edo blokeatu nahi dituzun hautatzeko.

**Notificaciones**: aktibatu egoera-barraren mezuen oharra bistaratzeko. Bestela, tonu bat hautatu eta bibrazioa aktiba dezakezu mezu berri baten oharra jasotzen duzunerako.

**Ajustes del servicio de información**: informazio-zerbitzuaren mezuak jasotzeko kanalak jaso, blokeatu, ikusi edo editatu nahi dituzun hautatzeko (gelaxkari buruzko informazio-mezuak). Informazio-zerbitzuko mezuen hizkuntza ere hauta dezakezu.

## Sare sozialak

Zure telefono berriarekin, sare sozialak erabili edo zure mikrobloga administra dezakezu, lineako komunitateetan. Zure uneko egoera eguneratu edo zure lagunen egoera bistaratu dezakezu, denbora errealean. Facebook, Twitter edo Beboko zure kontuan gehitu ditzakezu telefonora.

Horietako konturik ez badaukazu, zure webguneak bisitatzeko eta sortzeko aukera duzu.

**OHARRA**: Linean konektatzeak eta zerbitzuak erabiltzeak gastu gehigarriak sor ditzake. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

## Telefonoari zure kontua gehitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.

2 Mugitu, eta ukitu **SNS**.

3 Ukitu **Añadir cuenta**, sare sozialetako kontu bat gehitzeko.

4 Hautatu zer kontu-mota gehitu nahi duzun.

5 Sartu komunitate horretan kontua sortu zenuenean erabili zenituen helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, gero, ukitu **Iniciar sesión**.

6 Itxaron zure kontua egiaztatzen den bitartean.

7 Egiaztatu komunitatea **aktibatuta** dagoela. Zure komunitatea ukitzen baduzu, zure komunitate sozialaren egoera ikusiko duzu.

**IRADOKIZUNA!**: sare sozialen widget bat gehitzen baduzu bat gehitzen baduzu zure hasierako orrira, widget-ak zure egoera erakutsiko du telefonoak saretik datuak eguneratzen dituenean. Aplikazio batean saioa hasi gabe ere zure lagunen eguneraketa, argitalpen eta argazki guztiak jaso ditzakezu, aldi berean eta uneoro. Beti egongo zara egunean.

Widget-a ukituta, zuzenean sar zaitezke komunitate sozialera.

## Zure egoera ikustea eta eguneratzea

1 Hautatu zer komunitatetara sartu nahi duzun.

2 Komunitate horren hasierako orria agertuko da. Zure komunitate sozialaren uneko egoera ikus dezakezu.

3 Zure egoera eguneratu nahi baduzu, ukitu Estado, eta idatzi zure uneko egoera. Ondoren, ukitu Compartir.

**Oharra***:* sare-zerbitzuen araberakoa da.

## Telefonotik kontuak ezabatzea

1 SN *(*sare sozialak*)* administratzailearen zerrendan, ukitu **menuaren** tekla, eta ukitu **Eliminar cuenta**.

2 Hautatu eta egiaztatu zer komunitate ezabatu nahi duzun, eta, gero, ukitu **Eliminar cuenta**.

3 Berresteko, ukitu **Aceptar**.

# Kamera

## Bisorea ezagutzea

**Brillo**: irudira sartzen den eguzki-argiaren kantitatea ezartzen eta kontrolatzen du. Lerratu distira-adierazlea barran, "-" aldera irudiaren distira murrizteko, eta "+" aldera handitzeko.

**Zoom**: handitzeko edo txikitzeko. Bestela, alboko bolumen-teklak erabil daitezke.



**Galería**: Cámara moduan gordetako argazkiak eskuratu ditzakezu. Ukitu, eta argazki-galeria pantailan bistaratuko da.

**Argazkiak ateratzea**

**Modo de vídeo**: lerratu ikono hori bideoaren modura aldatzeko.

**Ajustes**: ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus **Konfigurazio aurreratua erabiltzea**.

**Tamaño de imagen**: ukitu aterako den argazkiaren tamaina (pixeletan) konfiguratzeko. Hautatu pixel-balio bat erabilgarri dauden zenbaki-aukeren artean: 3M (2048 x 1536), 2M (1600 x 1200), 1M (1280 x 960), VGA (640 x 480) eta QVGA (320 x 240).

**Enfoque**: ukitu ikono hau aukeren menua irekitzeko. Ikus **Fokatze-modua erabiltzea**.

**OHARRA**: argazki bat ateratzeko, memoria-txartel bat sartu behar duzu. Txartelik sartzen ez baduzu, ezin izango duzu argazkirik atera.

**IRADOKIZUNA!:** bisorearen pantaila argiagoa izateko, sarbide azkarreko aukera guztiak itxi ditzakezu. Bisorearen erdialdea behin bakarrik sakatu behar duzu. Aukerak berreskuratzeko, ukitu pantaila berriro.

## Fokatze-modua erabiltzea

Fokatze-modua hauta dezakezu, aukera hauen artean:

**Enfoque automático (AF):** kamera automatikoki fokatzea definitzeko.

**Macro:** Macro moduarekin, hurbil-hurbiletik egin daitezke lehen planoak. Lehen plano bat egin nahi baduzu baina fokatze-koadroa gorri badago, aktibatu Macro modua.

**Detección de cara:** argazkietarako aurpegia detektatzeko modua konfiguratzen baduzu, kamerak automatikoki detektatzen eta fokatzen ditu giza aurpegiak. Argazkiak Galería atalean gorde ondoren, argazkian agertzen den norbaiti beste ezizen bat jar diezaiokezu, aurpegi gainean luze ukituz. Galería ataleko pertsona-barrara joango da. Contactos atalarekin ere konekta dezakezu, kontaktu bati argazki bat esleitzeko.

**OHARRA:** ezin da zooma erabili aurpegia detektatzeko moduan.

**Manual:** kameraren fokatzea eskuz konfiguratzeko.

## Argazkiak azkar ateratzea

1. Luze sakatu telefonoaren eskuinean dagoen kamera-tekla.
2. Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea argazkia atera nahi diozun horri begira.
3. Arin sakatu argazkia egiteko botoia, eta fokatze-lauki bat agertuko da bisore-pantailaren erdian.

4 Jarri telefonoa objektua fokatze-koadroan agertzeko moduan.

5 Fokatze-laukia berde jartzean, kamerak fokatuta edukiko du gaia.

6 Luze sakatu argazkia egiteko botoia.

## Argazkia atera ondoren

Argazkia pantailan bistaratuko da.

Enviar Ukitu argazkia **Bluetooth, Email, Google Mail, MMS, Picasa** edo **SNS** bidez partekatzeko.

**OHARRA**: mugikortasunean MMSak deskargatuz gero, kargu gehigarriak ezar daitezke.

Usar Ukitu irudia **kontaktu baten ikono** gisa, **blokeo-pantaila** gisa edo **pantailaren atzealde** gisa erabiltzeko.

Renombrar Ukitu hautatutako irudiaren izena aldatzeko.

Editar Ukitu hainbat tresna erabilita irudia aldatzeko.

Ukitu ikono hau gordetako argazkien galeria ikusteko.

Ukitu irudia ezabatzeko.

Ukitu ikono hau berehala beste argazki bat ateratzeko. Aurretik ateratako argazkia gorde egingo da.

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu , konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko. Kameraren doikuntzak alda ditzakezu gurpila biratuta. Nahi duzun aukera hautatu ondoren, sakatu itzultzeko tekla. C**alidad de imagen**: hautatu **Súper fina, Fina** edo **Normal**.

Kalitatea zenbat eta handiagoa izan, argazkia orduan eta garbiagoa izango da. Hala ere, fitxategiaren neurria ere handitu egiten da, eta, beraz, memorian argazki gutxiago gorde daitezke.

**Balance de blancos: Automático, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado** aukerak daude.

**Modo de disparo:** General, Disparo continuo, Disparo retocado, Marcos, Panorámico automático, Disparo artístico eta Disparo de sonrisa aukerak daude.

**Contador:** argazkia ateratzeko botoia sakatu ondoren itxaroteko denbora konfiguratzeko balio du. Aukeratu: **Desactivado, 3 segundos, 5 segundos** edo **10 segundos**. Oso erosoa da norbera ere argazkian agertzeko.

**ISO:** ISO balioak kameraren argi-sentsorearen sentikortasuna adierazten du. ISO balioa zenbat eta handiagoa izan, kamera orduan eta sentikorragoa izango da. Oso erabilgarria da flasha erabili ezin den ingurune ilunetan. Hautatu ISO balioa: **Automático, 100, 200** edo **400**.

**Modo de escena:** hautatu bat: **Automático, Retrato, Paisaje, Deportes, Noche** eta **Atardecer**.

**Efectos de color:** hautatu kolore-tonu bat, argazki berriari jartzeko. Hautatu ondoren, erabili itzultzeko tekla kolore-tonuaren menua ixteko. Orain atera dezakezu argazkia.

**OHARRA:** koloretako irudi bat aldatu eta zuri-beltzean edo sepian jar dezakezu, baina zuri-beltzean ateratako irudi bat ezin da zuri-beltzean edo sepian jarri.

**Imagen capturada:** hautatu aktibatzea, atxikitzea edo desaktibatzea. Aktibatzea aukeratzen baduzu, argazkia segundo batez agertzen da, eta, gero, hasierako ikuspegira itzultzen da.

**Cuadrícula:** hautatu **Desactivado, 2x2,** edo **3x3**.

**Sonido obturador:** obturadorerako lau soinuetako bat hautatzeko.

**Geo-Etiquetado:** kokapenean oinarritutako telefono-zerbitzuak erabiltzeko balio du. Atera argazkiak edozein lekutan, eta jarri lekuaren etiketa. Argazkiak etiketa geografikoekin bateragarria den blog batera igotzen badituzu, mapan ikusiko dituzu irudi horiek.

**OHARRA:** GPSa aktibatuta dagoela soilik dago eskuragarri funtzio hori.

**Ocultar iconos:** kameraren doikuntza-ikonoak eskuz edo automatikoki hautatu aukeratzeko.
**Detección de parpadeo:** hautatu **Activado** egiaztatzeko begiak itxita dauden ala ez argazki bat atera ondoren.

**Iniciar:** kameraren doikuntza lehenetsi guztiak berrabiarazteko.

**IRADOKIZUNA!:** kameraren funtziotik ateratzean, lehenespenez dituen doikuntza guztiak berriro ezarriko dira, irudiaren tamaina eta kalitatea izan ezik. Lehenespenezkoa ez den doikuntza oro berriro ezarri beharko da, adibidez, kolorearen tonua eta ISO balioa. Egiaztatu hurrengo argazkia atera aurretik.

**IRADOKIZUNA!:** doikuntzen menua bisorearen gainean bistaratuko da; horrela, kolore-doikuntzak edo irudiaren kalitatea aldatzean, aldaketak ikusi ahal izango dituzu aurrebista-moduan, doikuntza-menuaren atzean.

## Gordetako argazkiak ikustea

1 Cámara moduan gordetako argazkiak eskuratu ditzakezu. Ukitu eta argazki-galeria pantailan bistaratuko da.

# Bideokamera

## Bisorea ezagutzea

**Brillo**: irudira sartzen den eguzki-argiaren kantitatea ezartzen eta kontrolatzen du. Lerratu distira-adierazlea barran, "-" aldera irudiaren distira murrizteko, eta "+" aldera handitzeko.

**Zoom**: handitzeko edo txikitzeko. Bestela, alboko bolumen-teklak erabil daitezke. Bideo bat grabatzen hasi aurretik, zoomaren funtzioa erabil dezakezu. Grabaketa egitean ezin da kontrolatu zoomaren funtzioa.



**Galería**: Bideokameraren moduan gordetako argazkiak eskuratu ditzakezu. Ukitu, eta argazki-galeria pantailan bistaratuko da.

**Modo de cámara**: mugitu ikonoa gorantz kameraren modura aldatzeko

**Grabaketa hasi**

**Ajustes**: ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus **Konfigurazio aurreratua erabiltzea**.

**Tamaño de vídeo**: ukitu grabatuko duzun bideoaren tamaina (pixeletan) konfiguratzeko. Hautatu hauetako bat: VGA (640 x 480), QVGA (320 x 240) edo QCIF (176x144).

**Modo de escena**: kamera konfiguratzeko, ingurura egokitu dadin. Hautatu bat: **Automático, Retrato, Paisaje, Deportes, Atardecer** eta **Noche**.

## Bideo bat azkar egitea

1 Luze sakatu telefonoaren eskuinean dagoen kamera-tekla.

2 Gero, joan -ra.

3 Bideokameraren bisorea agertuko da pantailan.

4 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea bideoz grabatu nahi duzunari begira.

5 Grabazioari ekiteko, sakatu bideoa grabatzeko botoia.

6 REC bisorearen beheko aldean agertuko da, tenporizadore batekin. Hor, bideoaren iraupena agertuko da.

7 Ukitu pantailan, grabatzen amaitzeko.

## Bideo bat grabatu ondoren

Irudi finko bat agertuko da pantailan, grabatutako bideoarena.

**Enviar** Ukitu zure bideoa partekatzeko Bluetooth, Email, Google Mail, MMS edo Youtube bidez.

**OHARRA**: mugikortasunean MMSak deskargatuz gero, kargu gehigarriak ezar daitezke.

**Abrir** Ukitu ikono hori, bideoa erreproduzitzeko.

**Renombra** Ukitu hautatutako bideoaren izena editatzeko.

**Editar** Ukitu bideoa erabiltzeko pantaila-atzealde gisa.

Ukitu multimedia-erreproduzitzailera sartzeko eta gordetako bideoak bistaratzeko.

Ukitu ikono hau grabatu berri duzun bideoa ezabatzeko, eta berretsi, Sí ukituta. Berriro bisorea agertuko da.

Ukitu hau berehala beste bideo bat grabatzeko. Grabatutako bideoa gorde egingo da.

Ukitu botoi hau aurreko menura joateko.

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu **Ajustes**, konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko. Bideokameraren doikuntzak alda ditzakezu gurpila biratuta. Nahi duzun aukera hautatu ondoren, sakatu **itzultzeko** tekla.

**Efectos de color**: hautatu kolore-tonu bat ikuspegi berrian erabiltzeko.

**Balance de blancos**: bideoetan agertzen diren eremu zuri guztiak errealistak izatea bermatzen du zurien balantzeak. Kamerak zurien balantzea behar bezala doitu dezan, argitasuna definitu beharko duzu. Hautatu **Automático, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado**.

**Duración**: bideoen iraupen-muga konfiguratzeko. Hautatu General edo MMS, MMS mezuetarako bideoen gehienezko tamaina mugatzeko.

**IRADOKIZUNA!**: MMS hautatzen baduzu, irudiaren kalitatea QCIF gisa finkatuko da, eta iraupen luzeagoko bideoak grabatu ahal izango dituzu

**Voz**: hautatu Silencio, bideo bat soinurik gabe grabatzeko.

**Ocultar iconos**: hautatu ikonoak kameraren menuan automatikoki edo eskuz ezkutatu nahi dituzun.

**Vídeo grabado**: hautatu aktibatzea, atxikitzea edo desaktibatzea. **Aktibatzea** aukeratzen baduzu, grabatutako bideoa segundo batez agertzen da, eta, gero, hasierako ikuspegira itzultzen da.

# Bideokamera

**Restablecer**: bideokameraren doikuntza guztiak berrezartzen ditu.

**IRADOKIZUNA!**: koloretan grabatutako bideo bat aldatu eta zuri-beltzean edo sepian jar dezakezu, baina zuri-beltzean grabatutako bideo bat ezin da zuri-beltzean edo sepian jarri.

## Gordetako bideoak ikustea

1. Bisorean, ukitu  .
2. Pantailan galeria bistaratuko da.
3. Ukitu bideoa behin galeriaren lehen planora ekartzeko. Automatikoki erreproduzitzen hasiko da.

# Zure argazkiak eta bideoak

## Argazkiak eta bideoak ikustea

1 Ukitu kameraren aurrebistaren pantailan.

2 Pantailan galeria bistaratuko da.

3 Ukitu bideoa edo argazkia, fitxategia pantaila osoan irekitzeko.

> **IRADOKIZUNA!:**
> mugitu ezkerrera edo eskuinera, beste argazki edo bideo batzuk ikusteko.

## Bolumena doitzea bideo bat ikustean

Bideo bat erreproduzitzen ari dela bolumena doitzeko, ukitu telefonoaren ezkerraldeko bolumen-teklak.

## Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa

1 Ukitu pantailaren hondo gisa ezarri nahi duzun argazkia, irekitzeko.

2 Ukitu pantaila aukera-menua irekitzeko.

3 Ukitu **Más** eta **Definir como**, eta, gero, ukitu **Fondo de pantalla**.

## Argazkiak editatzea

Aukera asko dituzu argazkiak aldatzeko, osatzeko edo animatzeko.

1 Ireki editatu nahi duzun argazkia, eta sakatu **menuaren** tekla.

2 Ukitu **Editar**, argazkia aldatzeko:

**Rotar y girar**: biratu irudia, hobeto ikusteko edo dibertigarriagoa izan dadin.

**Recortar**: argazkia mozteko. Hautatu argazkia lauki-forman edo biribilean moztu nahi duzun, eta mugitu behatza pantailan, eremua hautatzeko.

**Personalizar**: argazki batean doikuntzak egin ditzakezu kolore automatikoa, distira eta abar erabilita.

**Efecto**: ukitu aukera hori argazki bati efektu-aukerak ezartzeko.

**Marco**: argazkiari markoak gehitzeko balio du.

**Texto**: argazkiari testua gehitzeko balio du.

**Clipart**: argazkiari cliipart bat gehitzeko balio du.

**Herramienta de dibujo**: argazkiaren gainean esku hutsez marrazteko. Hautatu lau aukeren arteko lerroaren lodiera, eta, gero, erabili nahi duzun kolorea.

**Sello**: argazkia zigiluekin apaintzeko. Hautatu zigiluetako bat, eta hautatu argazkiaren zer lekutan gehitu nahi duzun zigilu bat.

**Ajustar tamaño**: argazkiaren neurria aldatzeko.

Argazkian egindako aldaketak gordetzeko.

Argazkian egindako aldaketak gordetzeko.

## Argazkia biratzea

1 Ezkerrera 90º biratzeko balio du.

2 Eskuinera 90º biratzeko balio du.

3 Argazkia ardatz bertikalean biratzeko balio du.

4 Argazkia ardatz horizontalean biratzeko balio du.

## Argazki bati testua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Hautatu testuaren kolorea eta bunbuilo-forma bat.

3 Idatzi testua teklatuarekin, eta ukitu **Completado**.

4 Mugitu testua, ukitu eta nahi duzun lekura lerratuta.

## Argazki bati efektua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Aukeretako edozein aplika diezaiokezu argazkiari.

3 Efektua desegiteko, ukitu .

## Argazki bat moztea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Hautatu argazkia zer formatan moztu nahi duzun.

3 Arrastatu laukitxoa moztu nahi duzun eremura. Hautatutako zatia mugitu egin daiteke, arrastatuz.

4 Elementuak hautatu ondoren, ukitu **Completado**.

## Argazki bat pertsonalizatzea

1 Edizio-pantailan, ukitu . Erabili pertsonalizazio-barra, eta doitu argazkia nahi duzu bezala.

2 Pertsonalizazio-konfigurazioa automatikoki doitzeko.

3 Pertsonalizazioaren aurrekoa eta ondorengoa konparatzeko.

4 Argazkiaren distira eta kontrastea doitzeko.

5 Nabarmendua eta itzalak doitzeko.

6 Argazkiaren kolorea orekatzeko.

7 Argazkiaren saturazioa doitzeko.

8 Argazkiaren garbitasuna doitzeko.

9 Argazkiaren akatsak ezabatzeko.

# Zure argazkiak eta bideoak

## Marko bat gehitzea

1 Edizio-pantailan, .

2 Ukitu edo marko bat hautatzeko.

3 Ukitu marko osoa ikusteko.

## Clipart bat gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Ukitu eta hautatu clipart bat.

3 Doitu clipart-aren tamanaina.

4 Clipart-a biratu egin dezakezu, eta erabilita.

## Marrazketa-erreminta erabiltzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Ukitu forma bat hautatzeko.

3 Ezarri kolorea eta lodiera ere.

4 Erantsitako marrazkia ezaba dezakezu erabilita.

## Zigiluak gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Ukitu eskuragarri dauden zigiluak ikusteko.

3 Ukitu pantaila argazkiari zigilua gehitu nahi diozun lekuan.

4 Kolorea doitu dezakezu, erabilita.

## Tamaina aldatzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Mugitu barran, argazkiaren tamaina aldatzeko.

## Bideoak editatzea

Bideoen edizio-funtzioak MPEG-4 fitxategi-formaturako daude eskuragarri.

## Bideoaren iraupena laburtzea

1 Hautatu **Editar**, eta, gero, .

2 Ukitu eta definitu hasiera-nahiz amaiera-puntu berriak. Ukitu Selec.

3 Ukitu galeriara itzuli eta aldaketak ezabatzeko.

## Trantsizio-estiloa hautatzea

1 Hautatu trantsizio-estilo bat, eta sakatu aurrebista ikusteko.

2 Ukitu , eta mugitu barran iraupena doitzeko.

3 Ukitu **Aceptar**, trantsizioa gordetzeko. Ukitu **Aplicar**, hautatutako trantsizioa aplikatu nahi baduzu. Hautatu **Aplicar a todos**, hautatutako trantsizioa gidoiko bideo-fitxategi guztiei ezarri nahi badiezu.

## Azpitituluak gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa.

2 Hautatu Editar, eta, gero, , bideoan azpitituluak sartzeko.

3 Ukitu , eta gelditu erreprodukzioa, testua agertuko den hasiera-puntua definitzeko.

4 Hautatu testu-estiloa, idatzi teklatuarekin, eta sakatu Selec.

5 Ukitu testua bistaratu dadin nahi duzun pantailako eremua, eta, gero, sakatu Selec.

6 Ordeztu lehendik dagoen fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

7 Jarraitu urrats horiek testua gehitzeko ere.

## Edizio-efektuak gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa.

2 Hautatu **Editar**, eta, gero, .

3 Hautatu argazkiari gehitu nahi diozun efektua.

## Bideoari bikoizketa gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa.

2 Hautatu **Editar**, eta, gero, .

3 Ukitu . **Mis sonidos** karpeta irekiko du. Hautatu zer pista gehitu nahi duzun bideora.

4 Bideoaren jatorrizko audio-pista ezabatuko da.

5 Audioa bideoa baino laburragoa bada, hautatu zenbat aldiz erreproduzitu nahi duzun: **Una vez** edo **Repetir**.

6 Ordeztu lehendik dagoen fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

7 Bestela, fitxategi berri bat grabatu eta zuzenean bikoizketa sar diezaiokezu,  sakatuta.

8 Ukitu Selec. uneko bikoizketa gordetzeko.

# Multimedia

Multimedia-fitxategiak memoria-txartel batean gorde ditzakezu, zure irudi- eta bideo-fitxategi guztietara erraz sartzeko.

Ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta, gero, **Galería**. Katalogo-barren zerrenda bat ireki dezakezu multimedia-fitxategi guztiak biltegiratzeko.

> **Oharra:** argazkiak gordetzeko eta haietara sartzeko, egiaztatu memoria-txartel bat sartu duzula telefonoan. Memoria-txartelik gabe telefonoak ez du erakutsiko ez argazkirik ez bideorik.

Bost katalogo-barra hauetako bat hauta dezakezu.

**Todas** : irudi eta bideo guztiak bistaratzeko.

**Favoritos** : argazki edo bideo bat luze sakatuta, aukeren leihoa agertuko da. Hor, argazkia gogoko gisa etiketatzeko aukera duzu. **Gogokoenen** barran zure argazki eta bideo gogokoenak agertuko dira.

**Vídeo** : zure bideo guztiak bistaratzen ditu.

**Etiqueta** : gogokoenen barrarekin bezala, argazkiak etiketatzeko balio du. Barra horretan zure argazki eta bideo etiketatuak agertuko dira.

**Gente** : kameran **Enfoque > Detección de cara** hautatu eta argazki bat ateratzen baduzu, **pertsona**-barrari gehituko zaio. Argazkian agertzen den pertsonari ezizena jar diezaiokezu, edo **kontaktu**-zerrendarekin sinkronizatu, kontaktu bat argazki bat esleitzeko.

## Ikuspegi kronologikoa

GT540ren **galeriak** zure argazki eta bideoen ikuspegi kronologikoa du. Pantailaren ezkerreko aldean argazkia egin zen data agertuko da, zaharrenetik berrienera ordenatuta.

# Multimedia

Data espezifiko bat hautatzen baduzu, egun horretan ateratako argazki guztiak atzealde zuri baten gainean elkartuko dira.

## Mis imágenes-en aukera-menua

Hautatu argazki bat eta luze sakatu, aukerak ikusteko.

## Argazki bat bidaltzea

1 Argazki bat bidaltzeko, luze sakatu.

2 Hautatu **Adjuntar**. Hautatu **Bluetooth, E-Mail, Gmail, Mensajes, Picassa** edo **SNS**.

3 E-Mail edo Mensajes hautatzen baduzu, argazkia mezu bati erantsiko zaio, eta, mezu hori ohi bezala idatzi eta bidali ahal izango duzu.

**IRADOKIZUNA!:** SNS kontu bat badaukazu eta telefonoan konfiguratuta badago, SNS komunitatearekin parteka dezakezu argazkia.

## Bideo bat bidaltzea

1 Bideo bat bidaltzeko, luze sakatu.

2 Hautatu **Adjuntar**. Hautatu **Bluetooth, E-Mail, Gmail, Mensajes,** edo **Youtube**.

3 E-Mail edo Mensajes hautatzen baduzu, argazkia mezu bati erantsiko zaio, eta, mezu hori ohi bezala idatzi eta bidali ahal izango duzu.

## Irudi bat erabiltzea

Pantailaren atzealde gisa edo kontaktu bat identifikatzeko erabili nahi dituzun irudiak hauta ditzakezu.

1 Luze sakatu nahi duzun argazkia, eta hautatu **Definir como**.

2 Hautatu **Icono de contacto, Pant. de bloqueo** edo F**ondo de pantalla.**

## Diapositiba-aurkezpen bat sortzea

Telefonoaren irudi guztiak ikusi nahi badituzu, diapositiba-aurkezpen bat sor dezakezu, irudiak irekitzen eta ixten ibili beharrik ez izateko.

1 Luze sakatu argazki bat, eta hautatu **Mostrar deslizamiento**.

## Argazkiaren datuak

Argazkiaren datuak ikus ditzakezu: **izena, data, ordua, bereizmena, tamaina, mota** eta **etiketa**.

1 Luze sakatu argazki bat, eta hautatu **Detalles**.

## Multimedia erreproduzitzailea

**Reproductor multimedia** karpetan, zure telefonoarekin deskargatu eta grabatu diren bideoen zerrenda agertzen da.

**Bideoak bistaratzea**

1 Hautatu **Reproductor multimedia**, Aplicaciones fitxan.

2 Ukitu **Vídeo**, eta hautatu erreproduzitu nahi duzun bideo-fitxategia.

**IRADOKIZUNA!**: GT540 gailua bateragarria da DivX bideo-formatuarekin; hala, edukiak eskuragarriagoak dira.

Ukitu **Música**, eta hautatu erreproduzitu nahi duzun bideo-fitxategia. Abestiak erreproduzitu, **albumaren** eta **artistaren** arabera sailkatu edo **erreprodukzio-zerrenda** bat sor dezakezu.

## Bideoa editatzea

1 Ukitu  eta, gero, Editor de vídeo .

## Gidoi grafikoa

1  **Establecer BGM**: gidoiari atzealdeko musika gehitzeko edo soinua aldatzeko balio du.

2 **Importar archivos**: gidoira multimedia-fitxategiak inportatzeko. 32 multimedia-fitxategi ere gehitu ditzakezu.

3 **Editor de clips**: gehitutako multimedia-fitxategiak kudeatzeko. Multimedia-fitxategirik gehitu ez bada, botoia desaktibatuta agertuko da.

4 **Vista previa**: sortutako bideo-fitxategiaren aurrebista ikusteko.

5 **Guardar**: sortutako bideoa gordetzeko.

6 **Añadir texto**: gidoiari testu-markoa gehitzeko.

Ukitu lehenengo, bideoa editatzeko.

: Ukitu hau fitxategi guztiak hautatzeko (gehienez ere 32).

Ukitu hau fitxategi guztiak desautatzeko.

25/32: hautatutako fitxategi-kopurua erakusten du.

ukitu hurrengo pausora joateko.

## Filma musikarekin

1 Joan ezkerrera eta eskuinera, estiloak ikusteko. **Musika duen film** bat bada, argazkiak soilik hauta ditzakezu.

: Editor de vídeo **pantailara** itzultzeko.

: estiloaren izena eta deskribapena ikusteko.

: estiloaren aurrebista ikusteko.

: ukitu hemen argazkiak aukeratzeko.

2 Argazkiak aukeratu ondoren, ukitu eta jarraitu hurrengo pausoarekin.

3 Ukitu argazki guztiak aukeratzeko, eta, gero, ukitu .

4 Hautatu musika, eta ezarri atzealdeko musika gisa.

5 Gehitu izenburua filmari teklatua erabilita, eta, gero, gorde.

6 Ukitu bideo-fitxategi osoa erreproduzitzeko.

7 Ukitu sortutako bideo-fitxategi osoa gordetzeko.

## Autoebaketa

Hiru estilo-txantiloi daude: **Retrato, Paisaje** eta **Objeto en movimiento**.

1 Ukitu , eta hautatu bideo bat. Jarraitu hurrengo pausora.

2 Ukitu bideo-fitxategiaren aurrebista izateko.

3 Ukitu Selec. fitxategia gordetzeko.

## Jokatzea

1 GT540 gailuak hainbat joko ditu. Erosketa-gunean ere deskarga ditzakezu joko gehiago.

2 Ukitu Iniciar botoia joko bat edo aplikazio bat hasteko.

**OHARRA**: baliteke kostu gehigarriak kargatzea zerbitzu hori erabiltzean, doakoak ez diren jokoak edo aplikazioak deskargatuz gero.

**OHARRA**: Java jokoen eta aplikazioen instalazioa webgunearen bidez soilik egin daiteke.

## Fitxategiak transferitzea USB biltegiratze masiborako gailuen bidez

Fitxategiak USB gailuen bidez transferitzeko:

1 Konektatu GT540 gailua PCra USB-kable baten bidez.

2 Egoera-barran, arrastatu USB ikonoa.

3 Hautatu **Conectado por USB** eta **Activar**.

4 Orain zure PCan ikus ditzakezu biltegiratze masiboko edukiak, eta fitxategiak transferitu.

**OHARRA**: aurretik SD txartel bat sartu behar duzu. SD txartelik gabe ezin da erabili biltegiratze masiboa.

## Musika

LG GT540k musika-erreproduzitzaile integratua du, zure gustuko abesti guztiak entzun ditzazun. Musika-erreproduzitzailera sartzeko, ukitu Música. Hortik hainbat karpetatara sar zaitezke:

**Artistas**: artistaren arabera bilduman mugitzeko.

**Álbumes**: albumaren arabera bilduman mugitzeko.

**Canciones**: telefonoaren abesti guztiak ditu.

**Listas reprod.**: sortu dituzun erreprodukzio-zerrendak biltzen ditu.

## Abesti bat erreproduzitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Música**.

2 Ukitu **Canciones**.

3 Hautatu erreproduzitu nahi duzun abestia.

4 Ukitu , abestia gelditzeko.

5 Ukitu , hurrengo abestira joateko.

6 Ukitu  abestiaren hasierara itzultzeko. Ukitu bi aldiz aurreko abestira itzultzeko.

Musika entzuten ari zarela bolumena aldatzeko, sakatu gora edo behera bolumen-teklak (telefonoaren ezkerreko aldean daude).

Luze sakatu zerrendako edozein abesti. **Reproducir, Añadir a lista de reproducción, Utilizar como tono del teléfono, Eliminar** eta **Buscar** aukerak agertuko dira.

**OHARRA**: Baliteke musika-fitxategien copyrighta estatuko eta nazioarteko hitzarmen eta legeek babestuta egotea. Beraz, litekeena da baimena edo lizentzia behar izatea musika erreproduzitzeko edo kopiatzeko.

Herrialde batzuetan, estatuko legeen arabera, debekatuta dago copyrightaz babestutako materialak kopiatzea. Fitxategia deskargatu edo kopiatu aurretik, eskatu informazioa dagokion herrialdean horrelako materialari buruz dagoen legeriari buruz.

## Irratia erabiltzea

LG GT540 telefonoak FM irrati integratua du, zure kate gogokoenak sintonizatu eta edozein lekutan entzun ditzazun.

**OHARRA**: irratia entzuteko, entzungailuak konektatu behar dituzu. Konektatu entzungailuen hartunean.

## Irrati-kateak bilatzea

Telefonoan kateak sintoniza ditzakezu, eskuz edo automatikoki bilatuta. Berariazko kanal-zenbakietan gordeko dira, berriro sintonizatu behar ez izateko. 48 irrati-kanal ere gorde ditzakezu.

Sintonizazio automatikoa

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Radio**.

2 Ukitu **menuaren** tekla.

3 Ukitu Exploración auto, eta, ondoren, Aceptar. Esleitu aurkitutako kateak kanal-zenbakiei, **Establecer, Saltar** edo **Detener** hautatuta.

**OHARRA**: eskuz ere sintoniza ditzakezu kanalak, irrati-frekuentziaren alboan agertzen den gurpila erabilita.

Kateak berrezartzea

1 Hasierako pantailan, ukitu Aplicaciones fitxa, eta hautatu **Radio**.

2 Hautatu **Reiniciar el canal** uneko kanala berrezartzeko, edo, bestela, **Restablecer todos los canales**.

## Irratia entzutea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Radio**.

2 Hautatu entzun nahi duzun irrati-kanalaren zenbakia.

**IRADOKIZUNA!**: seinalea hobeto hartzeko, luzatu entzungailuen kablea, irrati-antena baten modukoa baita.

**⚠ OHARRA**

Telefonoarentzat espresuki egina ez den entzungailu bat konektatzen baduzu, baliteke irrati-seinalea kalitate txarrekoa izatea.

# Googleren aplikazioak

## Googleren aplikazioak

1 Lehenengo, jarri Googleko kontu bat. Sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza.

2 Saioa hasi ondoren, kontaktuak, posta elektronikoa eta zure Google kontuko egutegia automatikoki sinkronizatuko dira GT540rekin.

**Iradokizuna**: Saioa hasi ondoren Googleko kontua aldatu edo deskonektatu nahi baduzu, jarraitu pauso hauei: **Aplicaciones > Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones > Google Apps > Borrar datos**.

## Google Maps

Egiaztatu zure kokapena eta jaso trafikoari buruzko informazioa eta zure helburura iristeko jarraibideak. GT540 modeloak WiFi o _G/GPRS-ra konektatuta egon behar du.

**Oharra**: Google Maps-ek ez ditu hiri edo herrialde guztiak.

**OHARRA**: kokapen bat **Street View**-rekin ikustean, sakatu **menuaren** tekla, eta, gero, **Modo brújula**, iparrorratzaren modua aktibatzeko.

## Google Market

Erosketen gunetik joko eta aplikazio erabilgarriak deskarga ditzakezu. Google Market-etik aplikazioak eta jokoak deskargatzen badituzu, GT540ren menuan agertuko dira. Aplikazio bat buruzko iruzkinak bidal ditzakezu, edo markatu, GT540rekin bateraezina iruditzen bazaizu.

1 Hautatu kategoria bat, edukien artean bilatzeko.

2 Hautatu instalatu nahi duzun aplikazioa.

**OHARRA**: jokoa amaitu nahi duzunean, erabili **hasierako** tekla edo **itzultzekoa**. Hasierako pantailara itzuliko zara. Jokoaren **menu**-tekla ere erabil dezakezu.

# Googleren aplikazioak

## Googleren posta elektronikoa

Telefonoa konfiguratzen den lehen aldian konfiguratzen da Google Mail. Sinkronizazio-konfigurazioaren arabera, zure telefonoko Google Mail aplikazioa automatikoki sinkronizatzen da webguneko Google Mail kontuarekin. Google Mailen aurrez ezarritako ikuspegia sarrerako ontziko elkarrizketa-zerrenda da.

Ukitu **menuaren** tekla, eta, gero, ukitu **Actualizar**, mezu elektroniko berriak bidaltzeko edo jasotzeko eta posta elektronikoa webguneko Google Mailen kontuarekin sinkronizatzeko.

## Google Talk

Googleren berehalako mezularitzako programa da Google Talk. Google Talk erabiltzen duten beste pertsona batzuekin komunikatzeko balio du.

# Tresnak

## Alarma bat ezartzea

1 Hasierako pantailan, ukitu Aplicaciones fitxa, eta hautatu **Alarma**.

2 Alarma berri bat gehitu nahi baduzu, ukitu **Nueva alarma**. Aurrez definitutako hainbat alarma daude, eta aktibatu egin ditzakezu.

3 Ukitu alarma bat aktibatzeko eta zer ordutan jotzea nahi duzun ezartzeko. Ordua definitu ondoren, alarmak jotzeko zenbat denbora falta den adieraziko dizu GT540k.

4 Hautatu tonu bat, eta aktibatu **bibrazioa**, nahi baduzu. Ezarri errepikapen-maiztasuna. Ikonoek aukeratutako asteguna adierazten dute.

5 Alarmari izena jar diezaiokezu, **etiketa** bat hautatuta.

6 Alarmak jotzen duenean, atzeratu egin dezakezu, hortik 10 minutura jo dezan, edo, bestela, desaktibatu.

7 Ukitu ⮌, eta itzuli lehen alarma-pantailara.

8 Luze sakatu pantailako erlojua, erloju-motak bistaratu daitezen. Horietako bat hauta dezakezu.

9 Alarma guztiak ezaba ditzakezu **Menú** tekla ukitu, eta, gero, **Eliminar alarma** sakatuz gero.

## Kalkulagailua erabiltzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Calculadora**.

2 Ukitu zenbaki-teklak, zenbakiak sartzeko.

3 Kalkulu sinpleak egiteko, ukitu behar duzun funtzioa *(+, -, *, /)*, eta, ondoren, =.

4 Kalkulu konplexuagoak egiteko, sakatu **menú** tekla, ukitu **funciones avanzadas** panela, eta hautatu hauetako bat: **sin, cos, tan, log, etab**.

## Egutegiari gertaerak gehitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Calendario**.

2 Egutegia erabiltzeko, lehenengo kontu bat sortu behar duzu Googlen.

3 Aukeratu gertaera zer datatan gehitu nahi duzun.

4 Ukitu **menuaren** tekla, eta, gero, **Evento nuevo**.

5 Ukitu **Qué**, eta sartu gertaeraren izena. Egiaztatu data, eta zehaztu zer ordutan nahi duzun gertaera hastea. Gertaera amaituko den ordua eta data sar ditzakezu beheko aldean sartutako dataren eta orduaren koadroetan.

6 Ukitu **Dónde**, kokapena sartzeko.

7 Gertaerari ohar bat gehitu nahi badiozu, hautatu **Descripción**, eta idatzi xehetasunak.

8 Alarma errepika dadin nahi baduzu, hautatu **Repetición**, eta ezarri **gogorarazleak**, beharrezkoa bada.

9 Sakatu Hecho, gertaera egutegian gordetzeko. Egutegiko kolorezko koadro batek adierazten du zer egunetan gorde diren ekitaldiak. Alarma batek joko du ekitaldiaren hasiera-orduan, ekitaldirik galdu ez dezazun.

## Egutegiaren ikuspegi lehenetsia aldatzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Calendario**. Ukitu **menú** tekla.

2 Egutegiaren ikuspegia hauta dezakezu: egun bat, aste bat edo hilabete bat.

## Quickoffice

Dokumentuak administratzeko eta ikusteko. Formatu hauek daude eskura: PDF, DOC, TXT, XLS eta ZIP.

1 Hautatu **Tarjeta de memoria**. Fitxategiak eta karpeta-zerrenda ikus ditzakezu.

2 **Documentos recientes** hautatzen baduzu, azken aldian erabili dituzun fitxategiak bistaratuko dira.

3 Fitxategi bat luze sakatzen baduzu, **Cambiar nombre, Propiedades** eta **Eliminar** aukerak agertuko dira.

4 Hautatu fitxategi bat, eta sakatu **menú** tekla Abrir, Registrar, Actualizar, Propiedades eta Acerca de aukerak irekitzeko. Fitxategi-motaren arabera, baliteke aukera gehigarriak egotea.

**PDF**: Ir a la página, Ajustar página eta Ajustar ancho.

**DOC/TXT**: Buscar

**XLS**: hoja de datos; hautatu Vista de resumen edo Vista completa.

## Ahots-grabagailua

Erabili ahots-grabagailua, ahots- edo bestelako audio-fitxategiak grabatzeko.

## Soinua edo ahotsa grabatzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Grabador de voz**.

2 Ukitu  grabazioa hasteko.

3 Ukitu  grabazioa amaitzeko.

4 Ukitu **menú** tekla, eta hautatu **Fijar como** grabazioa **telefonoaren** tonu gisa konfiguratzeko.

**OHARRA**: ukitu **Ir a lista** zure albumera sartzeko. Gordetako grabazioa entzun ahal izango duzu.

## Ahots-grabazioa bidaltzea

1 Grabazioa amaitu ondoren, audio-klipa bidal dezakezu, **menú** tekla, eta, gero, **Compartir** ukituta.

2 Hautatu **Bluetooth, E-mail, Google Mail** edo **Mensajes**. **Correo electrónico, Google Mail** edo **Mensajes** hautatzen baduzu, ahots-grabazioa gehituko zaio idazten duzun mezuari, eta ohi bezala bidaliko da.

# Sarea

## Arakatzailea

Nabigatzaileari esker, zure telefono mugikorretik joko, musika, berri, kirol, eta aisialdirako aukera zabal bat duzu azkar-azkar eskuratzeko moduan, modu oso eta dinamikoan. Edonon zaudela eta edozertan ari zarela ere.

## Sarera sartzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Navegador**.

2 Webgunera joango da.

**OHARRA**: kargu gehigarriak ezarriko dira zerbitzu horietara konektatu eta edukiak deskargatuz gero. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

## Web tresna-barra erabiltzea

**Ukitu** tresna-barra irekitzeko.

1 Ukitu web-orria eguneratzeko.

2 Ukitu orri bat aurrera egiteko.

3 Ukitu , aurreko orrira itzultzeko.

4 Ukitu gogoko bat gehitzeko.

5 Ukitu leiho berri batean beste webgune bat irekitzeko.

6 Ukitu nabigatzailearen doikuntzak aldatzeko.

## Aukerak erabiltzea

Ukitu menú tekla aukerak ikusteko.

**Ir**: webgune bat sartzeko eta orri hartara joateko.

**Salir**: nabigatzailea ixteko.

**Favoritos**: gogokoak, gunerik bisitatuenak eta historia gehitzeko eta bistaratzeko.

**Nueva ventana**: nabigatzailean leiho berri bat irekitzen du.

**Buscar en la página**: sartutako letra guztiak markatzeko.

**Gehiago**

- **Seleccionar texto**: hautatu aukera hori eta arbelean kopiatu nahi duzun testua hartu. Testua sartzeko edozein koadrotan itsatsi dezakezu.
- **Información de la página**: orriari buruzko informazioa erakusten du.
- **Compartir página**: orria mezu elektroniko bidez edo mezu-zerbitzu bidez bidaltzeko.
- **Descargas**: deskargen historia ikusteko.
- **Ajustes**: nabigatzailearen doikuntzak finkatzeko.

## Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea

Webgune gogokoetara jotzeko sarbide sinple eta bizkorra izateko, gogokoak gehitu eta web-orriak gorde ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Navegador**.
2. Ukitu menuko tekla eta gero **Favoritos** ☆. Markatzaileen zerrenda agertuko da pantailan.
3. Hautatu **Añadir marcador** eta, gero, sartu gogokoarentzako izena eta URLa.
4. Ukitu **Guardar**. Gogokoen zerrendan agertuko da gogokoa.
5. Gogokora sartzeko, ukitu ezazu, eta hala markatutako orrira konektatuko zara.

## Web nabigatzailearen doikuntzak aldatzea

Ukitu **menuko** tekla eta gero **Más > Ajustes**.

Hainbat doikuntza alda ditzakezu: nabigatzailearen diseinua (testuaren tamaina eta kodeketa, esaterako), hasiera-orria, cachea antolatu, cookieak, segurtasun-konfigurazioa eta abar.

# Ezarpenak

Hasierako orrian, ukitu Aplicaciones fitxa eta, gero, Ajustes.

## Haririk gabeko konexioak

WiFiaren eta Bluetootharen konexioak kudea ditzakezu hemen. Hegazkin modua eta mugikorren sareak ere konfigura ditzakezu.

**WiFi,** ukitu aktibatzeko: eskura dauden WiFi sareei konektatzeko WiFi funtzioa aktibatzen du.

**Configuración de WiFi**: sarearen jakinarazpena finkatzeko edo WiFi sarea gehitzeko.

**OHARRA**: telefonoak blokeatzeko pantaila bistaratzean, WiFia deskonektatu egiten da. Pantaila piztean, WiFia era automatikoan piztuko da. Hala, murriztu egiten da energia-kontsumoa.

Hala ere, aplikazio bat WiFi bidez datuak jasotzen ari bada, WiFia ez da deskonektatuko telefonoan blokeatzeko pantaila agertu arren.

**Bluetooth,** ukitu aktibatzeko: beste Bluetooth gailuekin konektatzeko Bluetooth konexioa pizten du.

**Ajustes de Bluetooth**: gailuaren izena eta atzemateko gaitasuna finkatzeko eta beste gailu batzuk bilatzeko.

**Red de telefonía móvil**: sare mugikorra aktibatzeko.

**Configuración de red móvil**: desplazamendu-egoerako aukerak, sarearenak eta APN finkatzeko.

**Modo avión**: hegazkin modua aktibatzen bada, haririk gabeko konexio guztiak desaktibatuko dira.

## Soinua konfiguratzea

**Modo silencio**: soinu guztiei aplikatzen zaie, multimedia fitxategiak eta alarmak izan ezik. Aktibatuz gero, soinu guztiak isilaraziko dira, multimedia fitxategienak eta alarmenak izan ezik.

# Ezarpenak

**Volumen del timbre**: sarrerako deien eta bestelako jakinarazpenen bolumena ezartzeko.

**Volumen multimedia**: musikaren eta bideoen bolumena finkatzeko.

**Tono del teléfono**: aurrez ezarritako tonua finkatzeko.

**Teléfono en vibración**: sarrerako deientzat bibrazioa hautatzeko.

**Tono de notificación**: aurrez ezarritako jakinarazpen-tonua finkatzeko.

**Tonos táctiles sonoros**: teklatuaren soinua aktibatzeko.

**Selección sonora**: pantailan hautaketa egitean soinuak entzuteko.

**Retroalimentación de vibración**: bibrazioaren berrelikadura finkatzeko.

**Notificaciones tarjeta SD**: SD txartelaren jakinarazpen-soinuak desaktibatzeko.

## Pantailaren doikuntzak

**Orientación**: telefonoa biratzean orientazioa automatikoki doitzeko.

**Animación**: leihoak irekitzean eta ixtean animazio bat bistaratzeko.

**Brillo**: pantailaren distira doitzeko.

Tiempo espera pantalla: pantaila deiak jasotzeko/egiteko modura itzultzeko igaroko den denbora finkatzeko.

## Ukipen-pantailaren doikuntzak

**Calibración de pantalla táctil**: pantaila berrezartzeko, horren erabilera errazagoa izan dadin.

## Datuak sinkronizatzea

Hautatu sinkronizatzen diren aplikazioak.

## Segurtasuna eta kokapena

**Usar redes inalámbricas**: Usar redes inalámbricas aktibatzen baduzu, telefonoak bere gutxi gorabeherako kokapena zehaztuko du WiFiaren eta sare mugikorren konexioaren bidez.

**Habilitar satélites GPS**: Habilitar satélites GPS aktibatzen baduzu, telefonoak bere kokapena zehaztuko du (bereizmena kaleen mailakoa izango da).

**Compartir con Google**: aukera hori aktibatuta, telefonoak uneko kokapena egiaztatuko du bilaketa egiteko Google erabiltzean.

**Patrón de desbloqueo de pantalla**: telefonoa babesteko balio duen desblokeatze-eredua ezartzeko da. Pantailaren desblokeatze-eredua sortzen lagunduko dizuten pantailak irekitzen ditu.

**Bloqueo de tarjeta SIM**: SIM txartela blokeatzeko edo SIM txartelaren PINa aldatzeko.

**Contraseñas visibles**: pasahitza bistaratzen du idazten ari zaren bitartean.

## Pantaila blokeatzea, blokeatzeko ereduaren bidez

1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes**.

2 Ukitu **Seguridad y ubicación**, eta hautatu **Patrón de desbloqueo**.

3 Konfiguratzen duzun lehen aldian, desblokeatzeko eredua sortzeari buruzko tutoriala agertuko da.

4 Eredu propioa marrazteko eta berriz marrazteko eskatuko zaizu.

Telefonoa pizten edo, atsedenaldian sartu ondoren, pantaila berriz aktibatzen duzun hurrengoan, desblokeatze-eredua marrazteko eskatuko zaizu, pantaila desblokeatzeko.

## Aplikazioak

Aplikazioak kudeatzeko eta hasiera azkarreko sarbide zuzenak finkatzeko.

**Orígenes desconocidos**: erosketa-tokikoak ez diren aplikazioak instalatzeko aurrez finkatutako doikuntza.

**Administrar aplicaciones**: instalatutako aplikazioak kudeatzeko eta erauzteko.

**Desarrollo**: aplikazioen garapeneko aukerak finkatzeko; hala nola **Depuración de USB, Pantalla activa** eta **Permitir ubicaciones simuladas**.

## Biltegiratzea

**Tarjeta SD**: espazio osoa eta erabilgarria egiaztatzeko. Ukitu **Desactivar tarjeta SD** txartela segurtasunez ateratzeko. **SD txartela formateatu** dezakezu, beharrezkoa bada.

**Almacenamiento interno del teléfono**: **eskura dagoen espazioa** egiaztatzeko. Hautatu **Rest. datos de fábrica** telefonoaren datu guztiak ezabatu nahi badituzu.

## Data eta ordua

Data, ordua, formatuak eta ordu-eremua finkatzeko.

## Hizkuntza eta herrialdea

Hizkuntzaren aukerak, herrialdearenak, testua sartzeari buruzkoak eta autozuzenketarenak finkatzeko.

## Bilaketa

Googleren bilaketari, bilaketa azkarreko koadroari eta bilaketetan sartzen diren telefonoko datuei eragiten dieten bilaketen doikuntzak aldatzeko.

## Irisgarritasuna

Irisgarritasun-doikuntzak erabili telefonoan instalatu dituzun irisgarritasun-osagarriak konfiguratzeko.

## Ahots-sintesia

Testutik ahotserako konfigurazioa erabili Android-en ahots-sintetizatzailea konfiguratzeko. Aplikazio jakinetan erabil daiteke aukera hori.

## Telefonoari buruz

Lege-informazioa ikusiko duzu eta telefonoaren egoera eta softwarearen bertsioa egiaztatu ahal izango duzu.

## DivXen nahierako bideo-erregistroa

DivXen nahierako bideoko erregistro-kodea sortzea.

Ikus http://vod.divx.com erregistratzeko eta laguntza teknikoa eskuratzeko.

# WiFi

Haririk gabeko kudeatzailearekin, telefonoaren Interneteko WIFi konexioak kudea ditzakezu (haririk gabeko LAN). Telefonoari haririk gabeko tokiko sareetara konektatzeko edo Internetera haririk gabe sartzeko aukera ematen dio. WiFi haririk gabeko teknologia bat da, Bluetootha baino azkarragoa eta irismen handiagokoa. Internet bidez azkar nabigatzeko eta posta elektronikoa erabiltzeko aukera ematen du.

**OHARRA**: GT540a bateragarria da WEP eta WPA/WPA2-PSK segurtasun-funtzioekin. WiFi zerbitzuaren hornitzaileak edo sare-administratzaileak sareko segurtasun-arrazoiak direla eta zifratua konfiguratzen badute, adierazi gakoa leihoan. Zifratua konfiguratu ez bada, leiho hori ez da agertuko. Eskatu gakoa WiFi zerbitzu-hornitzaileari edo sare-administratzaileari.

## 1. Nola konfiguratu WiFia

1 Ukitu **Ajustes** fitxako **Conexiones inalámbricas** eta, gero, aktibatu **WiFi**.

2 APa bilatu (sarbide-puntua).

- Bilatu konektatzeko AP bat.

3 APra konektatzea

- APen bilaketa-zerrendako dagokion APra konektatzen du.
- APren segurtasun-modua WEP edo WPA-PSK/2 bada, adierazi segurtasun-gakoa.

## 2. WiFi sare-profilerako laguntza teknikoa

1 WiFi profilerako laguntza teknikoa (nola konektatu ohiko erabilerako AP batera edo AP ezkutu batera).

1) APa bilaketa-zerrendan agertzen ez bada, profil gisa gordeta konekta dezakezu.

2) Askotan erabiltzen den APa profil gisa gordez gero, segurtasun-mota hori duen AP bati konektatzean segurtasun-kodea errazago sartzen da.

3) APa DHCPrekin bateragarria ez bada, konektatu APra IP helbide estatiko baten bidez.

**2** WiFi profilaren eremu bakoitza deskribatu.

1) Sarearen izena: SSID (ID)

2) Segurtasun-mota: WEP eta WPA/WPA2-PSKrekin bateragarria.

3) Segurtasun-kodea: segurtasun-gakoa gordetzen du.

4) IP/DNS doitzea: Automático edo Estático gisa definitzeko aukera ematen du, APa DHCPrekin bateragarria den ala ez kontuan izanik.

Balio estatikorako, sartu IParen helbidearen balioa, eta konektatzean IP helbide estatikoarekin erabiliko den DNS zerbitzariarena.

**3** Nola gorde WiFi profila.

1) Hautatu Añadir red WiFi menua WiFi sareen beheko zatian, eta, ondoren, sartu SSIDa eta segurtasun-mota.

2) AP bati segurtasun-mota horrekin konektatu ondoren, profila automatikoki gordeko da.

## 3. Nola lortu MAC helbidea

MAC iragazkia duen haririk gabeko sareekin konexioa konfiguratzeko, baliteke GT540aren MAC helbidea router-ean sartu behar izatea.

MAC helbidea pantaila honetan aurki dezakezu:

**Ajustes > Conexiones inalámbricas > Configuración de WiFi > Menú > Avanzado > Dirección MAC**

# Softwarea eguneratzea

## Telefonoaren softwarea eguneratzea

**LG telefono mugikorren softwarea Internet bidez eguneratzea**

Funtzio horren erabilerari buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo helbide hauetara: http://update.lgmobile.com o http://www.lg.com/common/ index.jsp > hautatu herrialdea > Soporte técnico.

Aukera horren bidez telefonoaren firmwarearen azken bertsioa Internetetik modu erosoan eguneratu dezakezu, zerbitzu-zentrora joan beharrik gabe.

Telefono mugikorraren firmwarea eguneratzeko programa lanean ari den bitartean, arreta jarri behar dio erabiltzaileak, harik eta prozesua erabat amaitzen den arte. Ezer egin aurretik, ziurtatu jarraibide eta ohar guztiak ulertzen dituzula. Eguneratzen den bitartean datuak transferitzeko USB-kablea edo bateria kenduz gero, kalte egin diezaiokezu telefono mugikorrari.

## Divx Mobile DIVX

DIVX BIDEOARI BURUZ: DivX, Inc.-ek sortutako bideo digitaleko formatua da DivX® . Telefono mugikor honek DivX ziurtagiri ofiziala du, eta DivX formatuko bideoak erreproduzitu ditzake. Joan **www.divx.com** helbidera, zure fitxategiak DivX bideo-formatura bihurtzeko behar duzun informazio eta software-erreminta gehiago jasotzeko.

DIVX-EN BIDEOAK NAHIERARA: DivX® ziurtagiria duen gailu honek erregistratuta egon behar du DivXen nahierarako bideoen edukia erreproduzitzeko. Erregistro-kodea sortzeko, gailuaren konfigurazio-menuan DivXen nahierarako bideoen (VOD) atala bilatu. Joan **vod.divx.com** helbidera, eta kode horrekin erregistro-prozesua amaitu eta horri buruzko informazio gehiago jasoko duzu.

**DivX® bideoak erreproduzitzeko DivXen ziurtagiriarekin 320 x 240 arte erreproduzitu daiteke.**

# Osagarriak

Hainbat osagarri dituzu zure telefono mugikorrerako (bereiz saltzen dira). Hautatu aukera hauek komunikatzeko dituzun beharren arabera. Galdetu erabiltzeko modua hornitzaileari. **(Hemen deskribatzen diren elementuak hautazkoak izan daitezke).**

**Kargagailua**



**Datu-kablea**
**Konektatu**
GT540 telefonoa PCra.



**Bateria**



**Erabiltzailearen eskuliburua**
GT540ri buruzko informazio gehiago.




**Entzungailu estereofonikoak**



**OHARRA** :

- Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.
- Hori egiten ez baduzu, bermea bertan behera gera daiteke.
- Osagarriak ezberdinak izan daitezke herrialdearen arabera.

## Giro-tenperaturak

Max.: +55 °C (deskarga), +45 °C (karga)

Mín.: -10 °C

# Declaración de Conformidad

LG Electronics

### Detalles del fabricante

**Nombre**

LG Electronics Inc

**Dirección**

LG Electronics Inc. LG Twin Towers 20,
Yeouido-dong, Yeongdeungpo-gu, Seoul, Korea 150-721

### Detalles del producto

**Nombre del producto**

GSM 850 / E-GSM 900 / DCS 1800 / PCS 1900 Quad Band and WCDMA Terminal Equipment

**Modelo**

GT540

**Empresa**

LG

CE 0168 ⓘ

### Detalles de Estándares Soportados

**R&TTE Directive 1999/5/EC**

EN 301 489-01 V1.8.1, EN 301 489-07 V1.3.1
EN 301 489-17 V1.3.2, EN 301 489-19 V1.2.1, EN 301 489-24 V1.4.1
EN 301 511 V9.0.2
EN 301 908-1 V3.2.1 EN 301 908-2 V3.2.1,
EN 300 328 V1.7.1
EN 50360:2001/EN62209-1:2006
EN 60950-1 : 2001

### Información Adicional

La conformidad con los estándares arriba mostrados esta verificada por los siguientes organismos autorizado (BABT)

BABT, Balfour House, Churchfield Road, Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, United Kingdom
Notified Body Identification Number : 0168

### Declaración

**Prometo bajo nuestra entera responsabilidad que el producto mencionado arriba,al cual esta declaración se refiere, cumple con los estándares y directivas anteriormente mencionadas.**

LG Electronics Logistics and Services B.V.
Veluwezoom 15, 1327 AE Almere, The Netherlands

| Nombre | Fecha |
| --- | --- |
| Seung Hyoun, Ji / Director | 16.Mar. 2010 |



Firma del representante

# Arazoak konpontzea

Kapitulu honetan, telefonoa erabiltzean sor daitezkeen zenbait arazo deskribatzen dira. Arazo batzuk konpontzeko zerbitzu-hornitzaileari deitu beharko diozu, baina, gehienetan, zeuk konpon ditzakezu.

| Mezua | Zergatia | Konponbidea |
|---|---|---|
| Error de SIM | SIM txartela ez da telefonoan sartu, edo ez dago ondo sartuta. | Egiazta ezazu SIM txartela behar bezala sartuta dagoen. |
| Sare-seinalerik ez | Seinale ahula.<br>GSM sare-eremutik kanpo. | Joan leiho batera edo eremu ireki batera. Egiaztatu zerbitzu-hornitzailearen estaldura. |
| Kodeak ez datoz bat | Segurtasun-kode bat aldatu nahi baduzu, kode berria berretsi behar duzu; horretarako, berriro sartu behar duzu. | Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Ezin da funtzioa konfiguratu | Zerbitzuen hornitzaileak ez du funtzio hori onartzen edo erregistratu egin behar da. | Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |

# Arazoak konpontzea

| Mezua | Zergatia | Konponbidea |
|---|---|---|
| Ezin da deirik egin | Gaizki markatu duzu.<br>SIM txartel berria; Gastu-mugara iritsi zara. | Sare berria ez dago baimenduta. Egiaztatu muga berriak. Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, edo ezarri berriro muga PIN 2 kodea erabilita. |
| Ezin da telefonoa piztu. | Pizteko tekla laburregi sakatu duzu. | Sakatu aktibatzeko eta desaktibatzeko tekla bi segundoz, gutxienez. |
| | Bateria agortua. | Kargagailua luzaroago konektatuta izan. |
| | Bateriaren kontaktuak zikinak daude. | Garbitu kontaktuak. |

| Mezua | Zergatia | Konponbidea |
| --- | --- | --- |
| Errorea kargatzean | Bateria hustuta dago. | Kargatu bateria. |
| | Tenperatura onartutako tartetik kanpokoa da. | Egiaztatu tenperatura egokia dela, itxaron pixka bat, eta gero, kargatu berriro. |
| | Kontaktu-arazoak | Egiaztatu elikatze-iturria eta telefonoaren konexioa. Egiaztatu bateriaren kontaktuak eta garbitu, beharrezkoa bada. |
| | Hartunean ez dago elektrizitaterik. | Egiaztatu beste hartune batean edo egiaztatu elektrizitatea badagoela. |
| | Kargagailu akastuna. | Kargagailua berotzen ez bada, ordeztu. |
| | Kargagailu okerra. | LGren jatorrizko osagarriak soilik erabili. |
| | Bateria akastuna. | Aldatu bateria. |
| Telefonoak sarea galtzen du | Seinalea ahulegia da | Automatikoki konektatzen da beste zerbitzu-hornitzaile batera. |
| Baimenik gabeko zenbakia | Markaketa finkoko funtzioa aktibatuta dago. | Egiaztatu doikuntzak. |

# BERME-TXARTELA

1.-Gorde txartel hau –behar bezala beteta eta saltokiaren zigiluarekin– eta erosketaren ordainagiria bermealdi osoan.

2.-Konponketa-zerbitzuak behar badituzu, berme-txartel hau erakutsi behar duzu.

3.-Gure produktuei edo konpainiari buruzko informazioa behar baduzu edo zalantzaren bat argitu edo kontsultaren bat egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan gure web-orrien bidez edo bezeroarentzako arreta-zerbitzuko zenbakien bidez.

4.-Irakurri arreta handiz berme-txartel honen edukia.

# MERKATARITZA-BERMEAREN ZIURTAGIRIA *(Telefonia)*

## BERMEAREN BALIO-BALDINTZAK

1. LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.Ak inportatutako produktu ofizialetarako soilik da berme hau. Bermeaz baliatzeko, baldintza hauek bete behar dira:
   1.1. Saldu aurretiko tartean (saltokia), gailuaren modeloa eta dagokion IMEI zenbakia ipini behar da bermean.
   1.2 Merkataritza-bermearen (erabiltzailea) epean, NAHITAEZKOA da merkataritza-berme hau behar bezala beteta eta dendan zigilatuta ekartzea, bai eta tiket edo faktura originala ere, gailuaren modeloa identifikatzeko IMEI mekanizatuarekin.
2. LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAk zure laguntza-sare teknikoan dituen zerbitzu tekniko baimenduak erabiliz gero soilik balia zaitezke bermeaz.
3. Gailua eskuliburuan zehazten diren jarraibideen arabera erabili behar da.

## BERMEAREN ESTALDURA

- Bermea LG markako telefono mugikorren modeloei aplikatzen zaie. • Hau da bermealdia:
  Gailu mugikorra (terminala) 24 hilabete
  Bateria eta beste kontsumigarri batzuk; 6 hilabete
  Osagarriak: 24 hilabete
  Baliabideak edo software-euskarria (CD-romak, memoria-txartelak, etab.): 90 egun
- Erosten den egunetik aurrera ezartzen da bermea (erosketa-fakturaren data).

## BERMEAREN SALBUESPENAK

- Aurreko puntuko baldintzak ez betetzea.
- Berme-ziurtagiri honetan zehaztu edo sartu ez diren gailuaren barneko zein kanpoko osagai edo osagarri guztiak.
- Martxan jartzea eta funtzionamendu-erakustaldiak erabiltzailearentzat, sistemen konfigurazioa.
- Erabileragatiko ohiko narriadura (bateriena, kameren lenteena, pantailena, entzungailuena edo kanpoko esku librekoena barne).
- Matxura suteen, uholdeen, gehiegizko hezetasunaren, eragile meteorologikoen, kolpeen edo zanpatzeen ondorioz gertatzen bada, edo tentsio edo energia desegokia aplikatzen bazaio.
- Gaizki erabiltzeagatiko kalteak, garraioan izandako kalteak barne –garraio-konpainiaren langileei erreklamatu behar zaie; beraz, emate-agiriak berretsi baino lehen paketeak ikuskatzea komeni da–.
- Haustura fisikoen ondorioz gertatutako matxurak –karkasak, plastikoak, pinturak, esmalteak, kristalak, edergarriak eta antzekoak–.
- Gailuekin batera datozen funtzionamendu- eta erabilpen-jarraibideei kasurik ez egiteagatik gaizki erabilitako produktuak.
- Gailuan osagarri desegokiak erabiltzeagatik.
- IMEI zenbakirik eta serie-zenbakirik ez duten gailuak, aldatuta edo ezabatuta dituztenak, edo berme-ziurtagiriko edo erosketa-fakturako zenbakiarekin bat ez datozenak.
- Gailua (softwarea nahiz hardwarea) LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.A.k baimendu gabeko langileek konpontzen edo manipulatzen badute.
- Gailu bakoitzari dagozkion mantentze-lanak, maiztasuna edozein delarik ere.
- Berme-ziurtagiri honetan agertzen edo zehazten ez den gailuaren barneko edo kanpoko osagarriren batek sortzen badu matxura, edo sarea aktibatzeko IMEI harpidedun-zenbakiari dagozkion arazoak badira.

## OHAR GARRANTZITSUA

- Merkataritza-berme honek ez die eragiten 2007ko azaroaren 16ko 1/2007 LEDaren arabera (2007ko azaroaren 30eko BOE, 287. zenb.) erabiltzaileak dituen eskubideei, berme honekiko independenteak eta bateragarriak direlako, nahiz eta saltzailearen adostasunik ez izan.
- 1/2007 LEDaren V. atalean aurreikusiaren arabera, erabiltzaileak eskubidea dauka legeak zehaztutako kasuetan saltzaileari eta/edo ekoizleari produktua konpontzeko eta ordezteko eskatzeko, bai eta, hala badagokio, prezioa merkatzeko edo kontratua bertan behera uzteko ere, neurriz kanpokoa ez bada behintzat.
- Dokumentu honetako eskubideak eta estaldurak izango ditu merkataritza-bermearen titularrak, estatu osorako.
- Dokumentu honetako eskubideak eta estaldura erreklamatzeko, bezeroarentzako arretako gure zenbakia erabil dezake bezeroak; bestela, idatziz jo dezake bulego nagusietara edo zerbitzu teknikoen zentrora edo ohiko jurisdikzio-bidera jo dezake.
- Konponketak iraun bitartean, ez da kalte-ordainik ordainduko gailua zerbitzutik kanpo egongo den denborarengatik.
- LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.k ez ditu bere gain hartzen gailu batek kanpo-elementuetan eragin ditzakeen kalteak.

## DATU PERTSONALEN BABESA

- 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, jakinarazten dizugu merkataritza-bermeko zerbitzua emateko nahitaezkoak diren datu pertsonalak LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAren ardurapeko RGPDko fitxategi batean sartuko direla, zuri zerbitzua emateko eta produktuei, zerbitzuei eta halakoei buruzko informazioa izateko. Datu horietara sartzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, sinatutako idatzi bat eta NANaren fotokopia bidali behar dituzu helbide honetara: Europa Empresarial, Edif. Madrid, Ctra. N-VI, Km. 24, Las Rozas (28230 Madrid).

## LG-REN HARREMANETARAKO DIREKTORIOA

### 902.500.234

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren telefono-zenbakia da hori. Deitu telefono horretara kontsultak eta erreklamazioak egiteko edo laguntza teknikoa eskatzeko.

### http://es.lgservice.com

Web-orri horren bidez, eskuliburuak eta SWren eguneratzeak deskarga ditzakezu, eta kontsulta elektronikoak egin ditzakezu posta elektronikoz.

### www.lge.es

Gure web-orri korporatiboa da hori. Gure konpainiari buruzko informazioa aurkituko duzu hor.

### LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.-REN BULEGO NAGUSIAK

Complejo Europa Empresarial
Edifcio Madrid
Ctra. Nacional VI, Km. 24
(28230) Las Rozas- MADRID
Tel: (+34) 91211.22.22
Fax:(+34) 91211.22.46

### LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.-REN ZERBITZU TEKNIKOEN ZENTRALA

Pol. In. El Oliveral Sector 13
Parcela 27 A
(46190) Ribarroja del Turia - VALENCIA
tel.: (+ 34) 902 500. 234
Faxa: (+34) 96 305.05.01

# ERABILTZAILEAREN ETA PRODUKTUAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

POSTA-KO
DEA:

HERRIA:

PROBINTZIA:

TELEFONOA:

EROSKETA-DATA:

MODELOA:

IMEI ZBKIA.:

SALTOKIAREN ZIGILUA:

**ESTABLEZIMENDUAK EDO DENDAK DATU GUZTIAK BETE BEHAR DITU SALEROSKETAREN UNEAN**

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008